# Arabako Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako V. Foru Planaren zirriborroa 2022-2026

Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

# Edukia

**AURKEZPENA** ... 3

**LEHENENGO ATALA: PLANAREN TESTUINGURUA ETA EGOERA** ... 5

**1.1. BERDINTASUNERAKO PLANEN GENEALOGIA LABUR BAT** ... 5

**1.2. ARABAKO GIZONEN ETA EMAKUMEEN BERDINTASUNERAKO V. FORU-PLANAREN ERAIKUNTZA KOLEKTIBOA** ... 8

**BIGARREN ATALA: BERDINTASUN-PLANAREN MUINA** ... 12

**2.1. PRINTZIPIO GIDARIAK** ... 12

**2.2. XEDEA** ... 14

**2.3. PLANAREN EGITURA: ARDATZAK, PROGRAMAK ETA NEURRIAK** ... 19

**GOBERNU ONA** ... 22

**AHALDUNTZEA** ... 31

**EMAKUMEEN KONTRAKO INDARKERIA MATXISTA DESAGERRARAZTEA** ... 38

**ZAINKETEN ANTOLAKETA SOZIALA** ... 49

**HIRUGARREN ATALA: PLANAREN KOORDINAZIORAKO, KUDEAKETARAKO, JARRAIPENERAKO ETA EBALUAZIORAKO EGITURAK ETA MEKANISMOAK** ... 57

**3.1. BERDINTASUNERAKO V. FORU PLANAREN KUDEAKETARAKO EGITURAK** ... 57

**3.2. PLANAREN KUDEAKETA-, JARRAIPEN- ETA EBALUAZIO-SISTEMA** ... 63

**LAUGARREN ATALA: ERANSKINAK** ... 65

**1. ERANSKINA ADIERAZLE ESTRATEGIKOAK** ... 65

**2. ERANSKINA ARAU-ESPARRUA ETA ESPARRU PROGRAMATIKOA** ... 69

**3. ERANSKINA AFA-REN SAILEN ORAINGO EGITURA** ... 72

# AURKEZPENA

Garrantzi bereziko esparru historiko batean jaio da Arabako Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako V. Foru Plana. Mundu osoko gizarte- eta osasun-krisiak agerian utzi ditu ordura arte modu orokorrean onartzen zen ongizate-ereduaren josturak. Testuinguru horretan, gero eta argiago dago bizitzaren eta berdintasunaren jasangarritasunerako gizarte-konpromiso eta konpromiso politiko baten beharra dagoela.

Zaintzak, erantzunkidetasuna, enplegurako sarbidea eta enpleguaren ezaugarriak, landa- eta hiri-lurraldeen arteko desberdintasuna, digitalizazioa, biztanleriaren zaharkitzea, pertsona migratuen egoera, pobrezia, gero eta handiagoa den desberdintasuna ... Azken urteotako agenda publikoan egon diren gaiak dira horiek guztiak. Beraz, garrantzitsua da Arabako Foru Aldundiaren (aurrerantzean, AFA) berdintasunerako politika publikoek ere AFAren agendan kontu horiek guztiak sartzen jarraitzea, dela erantzun kolektiboen sorkuntzaren bilaketa, direla arazo historiko edo egiturazkoak.

Aurreko paragrafoan aipatutako gaiei erantzun emateko erronka hartzen du AFAk. Paraleloki, 2016-2020 aldian Arabako Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako IV. Foru Planean aktibatutako estrategia aplikatzen jarraitzearen alde apustu egiten du. Konpromiso bikoitz horren bitartez, V. Planaren helburua Arabako Lurralde Historikoaren (ALH) *errealitatetik abiatuta eta errealitate horretarako* pentsatzen jarraitzea da. Horretarako, gaitasun eta behar argietara moldatuko da, eta Aldundiak berdintasunerako politiken eremuan egin duen bidea une oro integratuko. Begirada gizarte-arazo berrietara bideratzea funtsezkoa da plangintza publikoen arrakastarako; plangintza horien garapena eta sortutako estrategien jarraitutasuna arrakastaren gako batzuk dira.

Argi eta garbi bereizitako hiru alorretan edo blokeetan aurkezten eta garatzen da Arabako Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako V. Foru Plana:

Lehenengoak, **planaren testuinguruak eta egoerak**, Berdintasunerako V. plana zein egoeratan jaio den azaltzen du, eta planaren garrantzia eta filosofia azaltzen. Atal honetan, Arabako Foru Aldundiaren bereizgarri diren berdintasunerako planen eta haien helburuen errepaso genealogiko labur bat egiten da. Horren ondoren, Berdintasunerako V. foru-planaren existitzeko arrazoia azaltzen da. Horretarako, planeko konsonantzia eta interakzioa, eta plana kolektiboki sortzeko erabili den prozesua edo metodologia azaltzen dira.

Bigarren blokeak, **Berdintasunerako V. Foru Planaren muinak,** planak oinarri hartzen dituen printzipio orientatzaileak azaltzen ditu lehenik eta behin, bai eta planaren helburua ere. Horrez gain, planaren lau egitura-ardatzak aurkezten eta azaltzen ditu, eta atal honetan esku-hartze programak eta arestian aipatutako ardatzetan dauden neurri kopurua ere aipatzen dira.

Jarraian, bloke berean, ardatz bakoitza aurkezteko atal bat dago, eta ardatz bakoitzerako hitzartu diren neurri guztiak aipatzen dira. Hauek dira hurrengo kapituluetan sakonki deskribatzen eta azaltzen diren lau ardatzak: Gobernu ona, emakumeen ahalduntzea, emakumeen kontrako indarkeria matxista desagerraraztea eta zainketen antolaketa soziala.

Azkenik, Arabako Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako V. Foru Planak, **Planaren koordinaziorako, kudeaketarako, jarraipenerako eta ebaluaziorako egiturak eta mekanismoak**, elementu hauetan jartzen du arreta. Lehendabizi, V. Planaren organigramaren azalpenean; hots, planaren garapenean dauden edo V. Planak partaide bihurtu nahi dituen egiturak eta espazioak, eta haietako bakoitzarekin lotutako funtzioak. Bigarrenik. Planaren kudeaketarako, jarraipenerako eta ebaluaziorako oinarrizko mekanismoak azaltzen dira. Kudeaketari dagokionez, bereziki aurrekontu- eta baliabide-bermeari erreparatuko zaio eta, jarraipenari eta ebaluazioari dagokionez, jarduera horiek garatzeko oinarri orokor den planteamenduari azalpenari.

Bere aldetik, V. Planaren programetan eta ardatzetan definitutako helburuetarako zehaztu diren adierazle estrategikoak azaltzen dira 1. eranskinean. Adierazle horiek lehengai dira Plana ezartzeko garatuko diren urteroko plangintzen definizioak beranduago oinarri hartu ahal izateko. 2. eranskinean arau-esparru eta esparru programatikoaren erreferentzia nagusien berri ematen da (Europa, estatu- eta erkidego-mailan), eta azken eranskinean AFAren Sailen jadaneko egitura islatzen da (bakoitzaren helbideak, zerbitzuak eta erakundeak, eta entitate atxikiak identifikatzen dira).

# LEHENENGO ATALA: PLANAREN TESTUINGURUA ETA EGOERA

## 1.1. BERDINTASUNERAKO PLANEN GENEALOGIA LABUR BAT

Arabako Foru Aldundiak 20 urtez baino gehiagoz garatu ditu berdintasunerako planak, emakumeentzat eta gizonentzat bidezko lurralde historiko arabar bat lortzeko asmoz. Laburpen historiko honetan berdintasunerako planen izaera konstruktiboa eta jarraitzailea nabarmendu nahi da; izan ere, berdintasunaren alorreko politika publikoen praktikaren eta etengabeko hobekuntzaren ikasketan oinarritzen dituzte edukiak planek. Hori dela eta, korrelazio interesgarria dago planen eta helburuen artean. Halaber, aurreko planen egitura-gakoei erreparatzen bazaie, dokumentu honetan Berdintasunerako V. Foru Planerako diseinatu den atal bakoitzaren iraunaldia eta egokitasuna ulertu ahalko dira.

Aurreko mendeko 90eko hamarkadan egiten ditu Arabako Foru Aldundiak (AFA) berdintasunerako egituren inguruko lehen urratsak. 1991ko hasieran, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak (GOFE) «Emakumearen berdintasun-aukeretarako aholkularia» izeneko plaza bat iragarri zuen; harekin batera, definizio hori zuen lehen langilea jaio zen.

1999an, Gizonen eta Emakumeen Aukera Berdintasunerako I. Foru Plana garatzen da. Bi aldiz luzatzen da, eta 2003an amaitutzat jotzen. Plan horren baitan, berdintasunerako AFAren lehenengo koordinazio-egitura sortzen da. Plan horretan modu orokorrean planteatzen ziren zenbait gai. Berdintasunerako politika publikoen gaur egungo egituraren zantzuak ikus zitezkeen arren, elkarrekin erlazionatuta zeuden, eduki batetik bestera salto egiten zuten eta ardatz desberdinen edukiak errepikatzen zituzten gaiak ziren plan horren ezaugarri. Plan hori heldutasun gutxiko fase batean zegoen, baina aldi berean berdintasunerako egungo planak garatzeko AFAk egin duen bidearen balioa ikus daiteke. Esku-hartzeko sei ardatz zeuden, eta lehenengo plan honek hauetan jartzen zuen arreta: berdintasun-printzipioarekiko administrazio publikoaren egokitasuna, partaidetza soziala, kontziliazioa, berdintasunean oinarritutako kultura, aisialdia, kirola eta garapen ekonomikoa, eta kalitatezko bizitza bat eraikitzeko laguntza.

Lehenengo planak abiarazi zuen bidea egokitzen zuen Arabako Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako II. Foru Planak (2006-2008). Deigarri gertatzen zen, batez ere, lehenbizikoz agertzen zela indarkeria matxistei aurre egiteko atal bat, haren egitura orokorra eta globala bazen ere. Emakumeen kontrako indarkeriaren begiruneaz gain, bigarren plan honek hauetan ere jartzen zuen arreta: politika publikoetan generoaren ikuspuntua sartzea, berdintasuna bizitza ekonomikoan, kontziliazioa, bizitza-kalitatea sustatzea, garapen ekonomikoa eta enplegua.

**Arabako Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako III. Foru Planean** (2010-2014) jorratuko ditu AFAk irmotasun eta zehaztasun handiagoarekin lurralde arabarrean berdintasuna erdiesteko estrategiak. Zehazki, neurriak eta helburuak hiru gaietan azaltzen dira, aurreko planen adierazgarri ziren sei ardatzak ez bezala. Hala, hirugarren planaren muina izango ziren atal hauek sortzen dira: i) ahalduntzea eta balioak aldatzea, ii) kontziliazioa eta iii) genero-indarkeria. Gobernantza izeneko zeharkako ardatz baten alde apustu egitea da plan horren berezitasuna. Hala, protagonismoa ematen zaio berdintasuna erdiesteko behar den oinarri hain estrategiko honi.

III. Foru Planaren ebaluazioa berdintasunerako hurrengo foru-planaren diseinuaren unera arte luzatu zen, eta III. Foru planak V. Plana eraikitzeko hastapenak ezarri zituen. **Arabako Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako V. Foru Planak** (2015-2020) bere aurrekoak sustatu zuen egitura trinko eta sendoarekin jarraitu zuen. Hala ere, Gobernantza izeneko zeharkako ardatzaren kontzeptua kentzen du, eta ardatz nagusietan sartzen. Hala, guztira esku-hartzeko lau esparru sortzen dira: Gobernu ona, emakumeen ahalduntzea, emakumeen kontrako erasoa eta bestelako indarkeria matxistak, eta zainketen kultura eta antolaketa berri bat. Plan honek agerian jartzen ditu administrazioek oro har planak indarrean dauden ziklo osoan zeharkakotasuna modu koordinatu eta jarraitu batean lantzeko dituzten zailtasunak. Zeharkakotasuna behar bezala lantzeko, helburu estrategiko eta partekatutako agendez gain, koordinazio-maila oso altua behar da. Alabaina, administrazio publikoko sail edo esparru guztiek, egunerokotasunaren eta zurrunbiloen mende, zeregin eta erantzukizun espezifiko eta propioei lehentasuna ematen diete eta zeharkakotasunarekin lotutako ekintzak bigarren plano batera eramaten dituzte. Laugarren plan honen beste berezitasun estrategiko bat lurraldera egindako saltoa da. Izan ere, AFAren egituren mugak gainditzen dira, eta lurraldeari eta haren berezitasunei dagozkien kontuak kuadrillekin eta udalbatzekin eztabaidatzen dira. Zentzu horretan, bereziki nabarmentzekoak dira kuadrilla bakoitzaren berdintasun-teknikak.

Ikuspuntu genealogiko batetik ikusita, hurrengo irudiko elementuek Arabako Foru Aldundiak sortutako berdintasunerako lau planak laburbiltzen dituzte.

*1. irudia. Berdintasunerako foru-planen laburpen genealogikoa. Iturria: Arabako Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako V. Foru Plana.*




Itzul gaitezen egungo momentura. Berdintasunerako aurreko planen ondare kontuan hartuta, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako V. Foru Planaren (2022-2026) diseinuan eta sorkuntzan jartzen du arreta AFAk. Lehenik eta behin, berdintasunerako aurreko planean landu zen lurraldera salto egiteko estrategiarekin jarraitzeko beharra du V. Plan honen ainguraketa estrategikoak, baina aurreko planaren ardatzak eta jokaera-egiturak sakondu eta hobetu nahi ditu oraingo gizarte- eta osasun-krisiaren ondorioz azaleratutako behar berriei egokitzeko. Gainera, estrategikoki erreparatzen die Emakumeen eta gizonen berdintasunerako, eta emakumeen kontrako indarkeria matxistarik gabeko bizitzentzako legearen onespenetik eratorritako arau-aldaketei.

IV. Planaren iraunaldiarekin lotutako iritzi positiboetan, eta plan hori garatzeko zailtasunen inguruko ebaluazio-prozesuan hauteman ziren korapiloetan (eta korapilo horiek desegiteko beharrean) oinarritzen da plan horretan markatutako estrategiaren jarraitutasunaren aldeko apustua.

Aurrekoan bezalaxe, plan honen planteamendu filosofikoaren xedea asmo handiko eta izaera orokorragoa bat duten planetatik aldentzea da, plan zehatzagoak (iraunaldi mugatukoak, lurraldean eta bertako protagonistetan arreta jartzen dutenak, eta izaera posibilista dutenak) ezartzeko.

Hortaz, V. planaren egokitasuna eta filosofia berdintasuna erdiesteko estrategia orokor eta zehatz paralelo batean oinarritzen dira. Alde batetik, politika publikoen egiturazko begirada batetik AFAko erakundeen barruan jarraitutasuna ematen zaio berdintasunerako egiturak sendotzeari. Sendotze hori lurralde historiko arabarrean berdintasunaren erreferente bat dela ulertzen da. Egitura-, prestakuntza- eta prozedura-sendotze horrek Arabako Foru Aldundiak sendotzearen arrakastarako daukan barneko idiosinkrasiarekin bat etorri behar du. Hori da, izan ere, norabide horretan bide propioa egiteko nahiaren arrazoia.

Bestalde, Arabako Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako V. Foru Planak begirada eta planteamendu zehatzagoak bilatzen ditu, berdintasun-politiken barruan kokatuta daudenak. Zentzu horretan, tokiko politikek eta politika zehatzek eraldaketa sozialerako oinarrizko tresna gisa ere duten garrantzia ikusita, lurralde arabarreko erreferentziazko egiturak (kuadrillak eta udalerriak kasu) indartzen dituzten politikak sortzen jarraitzen du plan honek, berdintasunerako buruzagitza politiko, tekniko eta sozialak babestuz.

Berdintasuna eraldatzeko agente berriak daudela da V. plan horren beste berezitasun bat. Modu horretan, beharrezkoa den protagonisten aniztasuna modu espezifikoago batean lantzen da, eta gai hauek sartzen dira: emakume nagusien, migratzaileen, zuzendari eta enpresarien errealitatea lantzeko beharra, maskulinitateak, giza bazterketan dauden emakumeak, osasun mentala, emakume kirolariak, haur-hazkuntza, eten digitala eta landa-eremuetako digitalizazioa, etab.

## 1.2. ARABAKO GIZONEN ETA EMAKUMEEN BERDINTASUNERAKO V. FORU-PLANAREN ERAIKUNTZA KOLEKTIBOA

Partaidetza eta gobernantzakidetasuna Arabako Foru Aldundiaren (AFA) politika publikoen barruko bi printzipio gidari dira. Hori dela eta, planaren eraikuntzak printzipio horiek hartzen ditu oinarri, eta filosofia horren arabera diseinatu eta kontrastatu dira planaren neurriak, politika publikoa partaidetzaz eraikitzea – Inplikatutako pertsona eta erakundeen benetako parte-hartze eraginkorra ziurtatuz – politika publikoak diseinatzeko, gauzatzeko eta ebaluatzeko modurik bidezkoena, eraginkorrena eta demokratikoena dela onartuz.

Testuinguru horretan, bi faktorek funtsezko protagonismoa izan dute plana eraikitzeko orduan:

### Arabako Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako IV. Foru Planaren ebaluazioa

Bi ikuspunturen konbinazioari esker gauzatu da ebaluazioa. Lehendabizi, **ikuspuntu sistemikoa**, prozesuan, emaitzetan eta horien protagonistetan arreta jarri duena. Hari esker, errealitate sozialen irudi globalago bat lortu da. Bigarrenik, **agenteen ikuspuntuak** plangintzen ebaluazio- eta sorkuntza-prozesuen funtsezko gaietan **sartzea** bermatu duen **ikuspuntu pluralista**. Funtsezko gai horien artean informatzeko beharren identifikazioa eta prozesuen diseinua daude.

Informazioa (indibidualki eta kolektiboki) bildu eta aztertzeko honako tresna hauen bitartez gauzatu da ebaluazio-prozesua:

- Lau elkarrizketa sakon hauekin:
  - Berdintasunaren eta Giza Eskubideen oraingo eta aurreko Zuzendari politikoarekin
  - Berdintasun, Lankidetza eta Kulturartekotasun Zerbitzuko arduradun teknikoa
  - Berdintasun, Lankidetza eta Kulturartekotasun Zerbitzuko langile teknikoak
  - LAIAko arduradun teknikoa.
- Bost talde-saio hauekin:
  - Sailarteko Batzorde Politikoa (SBP)
  - Sailarteko Eragiketa Batzordea (SEO)
  - Berdintasun, Lankidetza eta Kulturartekotasun Zerbitzua
  - ALHaren Berdintasunerako Teknikarien Sarea
  - Berdintasunerako Foru Kontseilua.
- Galdeketa AFAko 12 zuzendaritzari, bere bi erakundeei eta Berdintasun, Lankidetza eta Kulturartekotasun zerbitzuari
  - Nekazaritza Zuzendaritza
  - Enplegu, Merkataritza eta Turismo Zuzendaritza
  - Lurralde Antolaketako Zuzendaritza
  - Kultura Zuzendaritza
  - Kirol Zuzendaritza
  - Finantza eta Aurrekontu Zuzendaritza
  - Funtzio Publikoko Zuzendaritza
  - Ogasun Zuzendaritza
  - Bide Azpiegituren Zuzendaritza
  - Mugikortasun eta Garraio Zuzendaritza
  - Ingurumen eta Hirigintza Zuzendaritza
  - Gizarte Zerbitzuen Zuzendaritza
  - Gizarte Ongizaterako Foru Erakundea
  - Gazteriaren Foru Erakundea
  - Berdintasun, Lankidetza eta Kulturartekotasun Zerbitzua

Dokumentuen analisi sakona.

Guztira 375 dokumentu aztertu dira (programak, aktak, legeak, ebaluazio-txostenak, ikerketak, memoriak, etab.). Beraz, esan daiteke informazio kopuru handia bildu dela informazio eta Berdintasunerako IV. Foru Planaren iraunaldiaren bost urteetan egondako prozesu guztiak pilatzeko eta sistematizatzeko helburuarekin. Zenbaitetan, dokumentazio hori IV. Planaren ebaluazioaren eta V. Planaren eraikuntzaren arteko zubi izan da; izan ere, prozeduren eta egituren nagusitasunari, eta hobekuntza-beharrak hautemateari buruzko informazio estrategikoa lortu da.

Ebaluaziotik abiatuta, Arabako Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako IV. Foru Plana modu parte-hartzailean sortu da. Hurrengo orrietan azaldutako elementuetan oinarrituta garatu da bederatzi hilabete iraun duen prozesu hau.




*1. taula. Arabako Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako V. Foru Planaren eraikuntza kolektiboaren faseen laburpena. Iturria: geuk egina.*

## 1. kontraste-prozesua

IV. Planaren ebaluazioren eta Berdintasunerako V. Foru Planerako proposamenen mapa batean oinarritzen da lehenengo kontraste-prozesuaren helburua. Egiturazko lan bat gauzatu da, ALHan berdintasun-politiken erdigunean dauden alderdi guztiekin kontrastatuko dena. Zehazki, lan-egitura hauekin egin dira lan- eta kontraste-saioak:

- Aldundiaren Berdintasun, Lankidetza eta Kulturartekotasun Zerbitzua.
- Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Sailarteko Batzorde Politikoa.
- Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Sailarteko Eragiketa Batzordea.
- Berdintasunerako Foru Kontseilua.
- Kuadrillen Berdintasunerako Teknikarien Sarea

## 2. kontraste-prozesua

Lehenengo kontraste prozesuan (barruko kontrastea) lortutako aldaketak aplikatu ostean, planaren lau ardatzen arlo espezifikoetako adituekin beste kontraste bat egin da (kanpoko kontrastea), ardatz bakoitzean esku hartzeko oinarrizko planteamenduak adituen ikuspegitik tratatu ahal izateko. Kontraste-prozesu oso honek AFAren Berdintasunaren eta Giza Eskubideen Zuzendaritzaren beharrezko baliozkotzea du ere (teknikoa eta politikoa).

### Erantzuleen eta funtsezko agenteen konpromisoa bilatzea

Eraikuntza kolektiboa finkatzeko eta etorkizunean egonkor manten dadin, alderdi guztiek eraikuntza prozesuarekiko konpromisoak bilatu behar dituzte. Hortaz, plana garatuta zegoenean, elkarrizketan aritzeko eta konpromisoak bilatzeko amaierako fase bat egon da, ariketa lotesle moduan parte hartzeko prozesuari amaiera emate aldera.

# BIGARREN ATALA: BERDINTASUN-PLANAREN MUINA

## 2.1. PRINTZIPIO GIDARIAK

Arabako Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako V. Foru Planak esku-hartze honetarako bideratutako sei printzipiotan oinarritutako esku-hartze publikoko ikuspuntu bat proposatzen du. Printzipio horiek, aurreko planeko planteamendua mantentzeaz gain, emakumeak ahalduntzearen eta lurraldearen ikuspuntuaren printzipioak gehitzen dituzte.

### Paradigma feminista

Feminismoa (hura osatzen duten joera eta pentsamendu-ildo desberdinak barne) V. Planaren ezinbesteko nukleoa da. Teoria praktiko eta politiko gisa, feminismoak agerian uzten du emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna agenda politikoan garatzeke dagoen gai dela. Politika publikoetan garatutako ikuspegia aldatzea eta zabaltzea ere dakar feminismoak. Horretarako, ekintza publiko honetan balio, ezagutza, praktika eta esperientzia feministak integratuko dira emakumeen eta gizonen arteko desparekotasuna desagerrarazteko asmoz.

### Genero-ikuspegia

Genero-ikuspegiari esker (oinarrizko analisi- eta lan-metodologia gisa), emakumeek eta gizonek bizitzaren alderdi guztietan dituzten desparekotasunak ikusgai jartzen eta aztertzen dira. Gainera, politika publikoen ustezko neutraltasuna zalantzan jartzeko aukera ematen du. Beraz, bere ekintzak emakumeen eta gizonen beharren begirune sistematikoan oinarrituko dituen agenda publiko bat eraikitzeko tresna bat da.

### Intersekzionalitatea

Intersekzionalitateak emakumeen (objektu politiko gisa) ikuspuntu konplexuago bat eskaintzen du. Haien aniztasuna agerian jartzen du, baina batik bat sozialki eraiki diren diskriminazio-kategoriak (besteak beste, klase soziala, jatorrizko kultura-testuingurua, adina, dibertsitate funtzionala, genero-identitatea, landa- eta hiri-eremuak, emakume presoak) aldibereko esparru anizkoitzetan interakzioan nola aritzen diren nabarmentzen du; horrek, izan ere, gizarte-desparekotasun sistemiko eta egiturazko bat sortzen du. Hortaz, genero-ikuspegiari ukitu integralago bat emateko tresna analitiko bat da intersekzionalitatea, bere baitan ekintza konplexuagoak egiteko proposamena eta beharra dituena.

## Emakumeen ahalduntzea

Ahalduntzea (pertsonen autoritatea eta boterea areagotzea bizitzari eragiten dioten erabakien inguruan), V. Plan honen printzipio gidari bat izateaz gain, planaren ardatz propio bat ere bada, bai eta helburu bat, tresna bat eta lan-prozesu bat ere. Emakumeen ahalduntzea maila ezberdinetan gertatu behar da, eta dimentsio pertsonala, kolektiboa, ekonomikoa, soziala eta politikoa kontuan hartu behar dira. Ahalduntze honen dimentsio kolektiboak emakumeen ekarpenen eta haien mugimenduen aintzatespena ere eskatzen du V. Plan honetan, kontsulta- edo erabaki-espazioetan emakumeen presentziaren eta parte-hartzearen bitartez. Hala, emakumeak eta haien mugimenduak politika publikoen parte izango dira.

## Giza garapen jasangarria

Giza garapen jasangarriak hauxe jartzen du agerian: giza garapen globala jasangarria izan dadin eta egitura-aldaketak susta ditzan, ingurune-dimentsioa, eta dimentsio soziala, ekonomikoa, eta emakumeen eta gizonen arteko berdintasunarena barne hartu behar ditu. Garapen Jasangarrirako 2030 Agendaren 5. helburuaren xedeek genero-berdintasuna, eta emakume eta neska guztien ahalduntzean jartzen dute arreta, eta helburu zehatzetan eta adierazle zenbakarrien bitartez hedatzen diren xede sorta bat planteatzen.

## Emakumeen kontrako indarkeria matxista desagerraraztea

Desparekotasunaren, eta emakumeen eta gizonen arteko botere-harreman asimetrikoen ondorio da emakumeen kontrako indarkeria matxista. Bestela esanda, desparekotasun honen muturreko adierazpena. Ondorioz, berdintasunaren alorreko aurrerapauso globalak emakumeen kontrako indarkeria desagerrarazteko aurrerapausoak dira. Hain zuzen ere, V. Planaren ardatzetako bat emakumeen kontrako indarkeria matxista desagerraraztearekin erlazionatuta dago. Zehazki, AFAren jokabide-esparru propioak nabarmentzen ditu Emakumeen eta gizonen berdintasunerako, eta emakumeen kontrako indarkeria matxistarik gabeko bizitzentzako legearen artikuluak gordeta.

## Lurraldeko ikuspegia

Haien artean erlazionatzen eta historia, kultura, nortasuna eta erakundeak sortzen dituzten eragile sozialen multzo gisa definitzen du lurraldea, naturarekin elkarreraginean eremu geografiko zehatz batean. Arreta berezia jartzen du lankidetza deszentralizatuak egiten duen desberdintasunean aurre egiten diegun erronkei heltzerakoan. Horri esker, lurraldeen eta kideen arteko lankidetza errazten da, elkartasuneko, elkarrekikotasuneko, horizontaltasuneko eta partaidetzako printzipioetan oinarrituta. Tokiko gobernantza eta boterea sustatzen ditu, baita lurraldeko eragile, gaitasun eta baliabideak eratu eta mobilizatzea ere. Tokikoa estatukoarekin eta nazioartekoarekin antolatzen du, maila ezberdinetako jarduerekin.

Giza Eskubideen ikuspegia

Giza garapen jasangarria ezin da giza eskubideetarako sarbidearen eta haien erabilera askearengandik bereizi, herritar guztientzako baita, salbuespenik gabe. Horien sustapena giza eskubide indibidual eta kolektibo guztien (izan zibilak, politikoak, ekonomikoak, sozialak, kulturalak edo hirugarren mailakoak) unibertsaltasun, banaezintasun eta interdependentzian oinarritu behar da. Giza duintasunak eskubideen osotasuna asetzea behar du, eta horrek soilik handiagotu ditzake pertsonen eta herrien benetako askatasunak, eta haien ongizatearekin lagundu.

Eskubideen ikuspegitik, pertsonak eta kolektiboak eskubideen subjektu dira, ez arreta-objektu. kontzeptu hori presente egon behar da politikaren prozesu osoan eta beharrezkoa da ikuspegi integrala izatea. Horretarako, eskubideen titularrekin nahiz ardura eta betebeharren titularrekin egin behar da lan, azken hauek baitira herritar guztien giza eskubideak betetzen direla bermatzen dutenak.

Bestalde, gaur egun, eta populazioaren migrazioen ondorioz gizarteak duen izaera multikulturala medio, eskubideen ikuspegi hori pertsona ororen giza eskubide eta askatasunen errespetuari, babesari eta sustapenari dagokio, edozein dela haien arraza, kolorea, sexua, hizkuntza, erlijioa, ideologia politikoa edo bestelakoa, jatorri nazionala edo soziala, egoera ekonomikoa, jaiotza, ezintasuna edo bestelako egoeraren bat. AFAk apustu egin du lankidetzako harreman nahiz ekimenek kulturen aniztasuna baloratzearen alde, kulturen arteko harremanak bidezkoak, adeitsuak eta zuzenak izatea lan egitearen alde eta harreman multikulturalak eragin dezaketen topaketa kulturaleko mekanismoak erraztearen alde.

## 2.2. XEDEA

**2022-2026 aldian Arabako Foru Aldundiari berdintasunaren alorreko politika publikoetatik abiatuta berdintasuna bultzatzeko aukera ematen dion lan-estrategia global baten sendotzearen** jarraipenean dago oinarrituta Arabako Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako V. Foru Planaren xedea. AFAren barruan garatze-prozesuan dagoen beste prozesu paralelo garrantzitsu batekin batera planteatzen da bultzada hori: Arabako gizonen eta emakumeen berdintasunerako foru arauaren sorrera.

Beste alde batetik, Berdintasunerako V. Foru Planak lege-esparrua eta erkidego-mailako esparru programatikoak hartzen ditu oinarri, eta haiekin bat dator. Zentzu horretan, hauek nabarmendu behar dira: Emakumeen eta gizonen berdintasunerako, eta emakumeen kontrako indarkeria matxistarik gabeko bizitzentzako legea eta EAEko Emakumeen

Berdintasunerako VII. Plana. Jarraian azalduko da nola dator bat V. Plana arestian aipatutako bi tresnekin.

Alde batetik, euskal administrazio publikoek berdintasun-politikaren alorrerako erreferentzia gisa eta politika horiek betetzeko duten arau-testuinguru orokorra da Emakumeen eta gizonen berdintasunerako, eta emakumeen kontrako indarkeria matxistarik gabeko bizitzentzako legea. Honako hau esaten du zioen azalpenean 1/2022 Legeak, martxoaren 3koak: nahiz eta 4/2005 Legeak lehendabizi berdintasun-politiketarako laguntza- eta bideratze-esparru juridiko sendo eta orokor bat ezartzeko aukera eman zuen, legeak 10 urte bete zituela eta 2015ean egin zen ebaluazio kualitatiboak behar hau aipatzen zuen: «*[…] harago joan behar da, emakumeen eta gizonen eskubide- eta aukera-berdintasunaren aldeko apustuak alderdi formala gainditu dezan eta praktika bihur dadin, eta egituretan, erakundeetan, diskurtsoetan, hausnarketetan, klase politikoan, teknikariengan eta oro har gizarte osoan eragina izan dezan. Ebaluazio horrek ondorioztatzen du beharrezkoa dela herrialde-itun bat egitea esparru horretan*».

Zehazki, Legearen helburu nagusiak hauek direla aipatzen da: alde batetik, berdintasunaren aldeko eta indarkeria matxistaren kontrako herrialde-itun bati bide ematea (4/2005 Legearekin alderatuta, aldaketa-esparru handi bat) eta, bestetik, berdintasun politikak egoera juridiko-normatibo eta sozial berrira egokitzea.

Lehenengo testuinguruari (juridikoa eta arauei dagokiena) dagokionez, 1/2022 Legea, martxoaren 3koa, zenbait araudirekin bat dator:

- Europako Kontseiluaren Hitzarmenak, emakumeen kontrako indarkeria eta etxeko indarkeria prebenitzeari buruzkoak (Istanbulgo Hitzarmena delakoa), Espainiako estatuan 2014an indarrean jarri zena, barneko ordenamendu juridikoak egokitzera behartzen du hitzarmena aplikatzen dela bermatzeko.
- Nazio Batuen Garapen Jasangarrirako 2030 Agendak, 2015ean onetsi zena, bere 5. helburuan 2030erako emakumeen diskriminazio eta haien kontrako indarkeria forma guztiak desagerraraztea planteatzen du (Euskadi Basque Country 2030 Agendan integratu da helburu hori).
- 2017an sinatutako Genero Indarkeriaren kontrako Estatu Itunean erakundeek emakumeen kontrako indarkeriaren aurrean duten erantzuna hobetzeko konpromisoak eta neurri zehatzak jasotzen dira.
- 8/2015 Lege Organikoa, uztailaren 22koa, haurrak eta nerabeak babesteko sistema aldatzen duena.
- 26/2015 Legea, uztailaren 28koa, haurrak eta nerabeak babesteko sistema aldatzen duena.
- 4/2015 Legea, apirilaren 27koa, delituaren biktimaren Estatutuarena, delituen biktimak babesteko legeetan aldaketa garrantzitsuak sartzen dituena.

- 6/2019 Lege Dekretuak, martxoaren 1ekoa, enplegu eta lanaren arloan emakumeen eta gizonen arteko tratu- eta aukera-berdintasuna bermatzeko presako neurrienak, EAEko mailako araudiak kontuan hartu beharreko aldaketa garrantzitsuak sartzen ditu estatu-mailan.
- Azkenik, EAEko araudia egokitu egin behar da irizpide sozialak (emakumeen eta gizonen berdintasunarekin lotutakoak barne) txertatzeko betebeharri erantzuna emateko, hala ezartzen baitu 9/2017 Legeak, azaroaren 8koak, sektore publikoko kontratuenak, Espainiako ordenamendu juridikora Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB zuzentarauen transposizioa egiten duenak.
- 1/2022 Legean xedatzen diren edukiei dagokienez, jarraian aipatzen diren elementuak azpimarratzea planteatzen da (atal honetan modu ez oso sakonean azaltzen dira eta ez dago haien zerrenda sakona bat sortzeko asmorik). Logikoa denez, elementu hauek Arabako Foru Aldundiaren eskumen-esparruan ere eragina dute:
- «Emakumeen kontrako indarkeriak emakumeen eta gizonen arteko desparekotasunaren arazo sistemiko eta unibertsalaren barruan duen kokapena»ri buruzko ikuspuntu partekatu bat bermatzeko beharra. Horretarako, hauen antzeko gaiak planteatzen dira:
    - Tartean dauden langile guztien prestakuntza bermatzeko beharra.
    - Ikuspegi intersekzional bat integratzeko beharra.
    - Ikerketa gehiago egiteko, eta datuen bilketa, jakinarazpena eta zabalkundea hobetzeko beharra.
    - Gizarte kontzientziazioarekin erlazionatutako programa instituzionalen presentzia eta iraunkortasuna bermatzeko beharra.
    - Prebentzioa, funtsezko beste erronka baten moduan.
    - …

- Emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan indarrean dagoen araudiaren aplikazioa hobetzea eta bermatzea (*araudi horren printzipio orokorretan hauen aipamen garbia egon behar du: emakumeen kontrako indarkeria matxistaren prebentzioa eta desagerpena eta emakumeen partaidetza politika publikoetan, gizonen inplikazioa, politika horietan aplikatzen den intersekzionalearekiko begirunea, etab.*).
- Berdintasun-politikak garatzeko baliabide ekonomiko, tekniko eta giza baliabideak sendotzea, berdintasunerako organismoek eta zerbitzuek aintzatespen handiagoa izan dezaten.
- Berdintasun-politikan aurrerapausoak emateko funtsezko elementuak diren euskal botere publiko guztietan oro har ezartzeko neurriak ezartzea (besteak beste, planak, zerbitzu espezializatuak, prestakuntza, emakumeek eta gizonek erabakiak hartzeko orduan duten ordezkapena handiagotzea edo Sektore publikoko kontratuen legeak errazten dituen berdintasunerako klausulak eranstea).

- Euskal administrazioek Emakumeen eta gizonen berdintasunerako erakundearteko batzordean adostutako berdintasun-politiketarako kalitate-arauak txertatzea. Arau horien txertaketa Legearen I. eta II. tituluetan aipatzen da batik bat, baina III. tituluaren zenbait artikulutan ere, kultura eta komunikabideak, hezkuntza, oinarrizko beste gizarte-eskubide batzuk, lana edo antzeko alorretan.

Laburbilduz, Emakumeen eta gizonen berdintasunerako, eta emakumeen kontrako indarkeria matxistarik gabeko bizitzentzako legeak euskal araudiko berdintasun-politikak azken garapen juridiko eta programatikoetara (Europakoak eta estatukoak) egokitzeko beharra azpimarratzen du. Horretarako, berdintasun-politikak euskal administrazio publikoen agendako ezinbesteko ikasgai izango dira, eta arreta berezia jarriko zaio emakumeen kontrako indarkeria matxistari, terminoa kontzeptualki zabalduz, ordura arte garatutako ikuspegiak berrikusiz eta emakumeen kontrako indarkeria matxistaren desagerpena lortzeko mekanismo berriak sortuz.

Bestalde, XI. legegintzaldirako Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VII. Planean 2018-2021 legegintzaldiari dagokion berdintasun-arloko agenda politikoa barne hartzen da. Indarraldia gorabehera, dokumentuaren garrantzia kontuan hartzen da, euskal botere publikoek emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko jokabiderako dokumentu gidari bat delako.

Testuinguru horretan, VII. Plana alor eta ardatz honen inguruan egituratzen da: Gobernu onaren esparrua, eta emakumeen ahalduntzearen, eskubideak bermatze aldera ekonomiak eta antolaketa soziala eraldatzearen, eta emakumeen kontrako indarkeriarik gabeko bizitza askeen ardatzak.

Halaber, VII. Planak esku-hartzera bideratutako printzipio orientatzaile sorta bat planteatzen du, zeinak jarraian azaltzen eta gainerako euskal botere publikoen jokabidea bideratzeko ere garrantzi handikoak baitira: paradigma feminista, genero-ikuspegia, intersekzionalitatea, emakumeen ahalduntzea eta giza garapen jasangarria.

Laburbilduz, Arabako Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako V. Foru Planak (2022-2026) VII. Planari ere erreparatzen dio, esku-hartzearen parametro handiei eta VII. Planean planteatutako neurriei dagokienez, betiere Emakumeen eta gizonen berdintasunerako, eta emakumeen kontrako indarkeria matxistarik gabeko bizitzentzako legea gordetzeari lehentasuna emanez. Aurretik azaldu den moduan, euskal administrazio publikoetako berdintasun-politiken garapenerako esparru juridiko berritua definitzen du lege horrek.

Oro har, Arabako gizonen eta emakumeen berdintasunerako V. foru-planak bi mailatan esku hartu nahi du:

Lehenengo maila: berdintasunaren arloan erreferentziakoak diren arauak betetzea eta emakumeen eta gizonen herri-eskubideak lortzeko beharrezkoak diren mekanismo formal guztiak sortzea. Lehen maila honetan gobernu onaren ardatzaren azpixede batzuk sartzen dira:

- AFAren barruan berdintasunerako **mekanismo formalen** sorrera ezartzea eta bultzatzea, AFAtik bertatik bizitzaren esparru guztietan emakumeen mendekotasuna eta diskriminazioa mantentzen eta justifikatzen dituzten balioak kentzeko.
- AFAren politiketan berdintasunaren **zeharkakotasuna** bultzatzea, sailen eta zerbitzuen lankidetzatik eta koordinaziotik abiatuta, egiturazko eta partekatutako eraldaketa bat egon dadin.
- Berdintasunaren alorreko **arauak gordetzen direla** eta berdintasunerako eskubidea bermatzen dela ziurtatzea, jarraipen- eta ebaluazio-mekanismoekin eta hobekuntza jarraituko mekanismoekin.
- Berdintasunerako V. Foru Planean azaldutako esku-hartzeko estrategia ezartzeko **behar diren baliabideak** (aurrekontukoak, teknikoak, denborazkoak, antolakuntzakoak eta gizatiarrak) erabiltzea eta besteen eskura jartzea.

Bigarren maila: politika publikoek egin beharreko jarduketa, berdintasuna emakumeen eta gizonen subjektibotasunean balio modura gelditzeko, baina ez emandako zerbait balitz bezala, eskubide moduan baizik. Planteamendu holistiko bat denez, Berdintasunerako V. Foru Planaren ardatz guztiak barne hartzen ditu bigarren maila honek eta azpixede hauek biltzen ditu:

- **Lurraldeen arteko orekan** eta tokiko garapen jasangarrian ekarpenak egitea, oreka demografikora eta lurraldeen arteko orekara, eta Arabako Lurralde Historikoaren garapen jasangarri landatarrago batera zuzendutako berdintasun-politiken diseinuan arreta jarriz.
- Hirugarren sektoreko mugimendu sozialen eta erakundeen egiazko partze-hartzea bermatuko duen oraingo gizarte-paradigmaren eraldaketan sartzen dituen berdintasunerako **kolaborazio-gobernantza** bat sortzea.
- Politika publikoek emakumeen **ahalduntzea eta partaidetza** bultzatzea, partaidetza sozialaren eta politikaren, eta lan-partaidetzaren esparru guztietan eta modu eraginkorrean.
- **Erantzunkidetasuna eta aldaketa-prozesuko partaidetza** bultzatzea, tokiko entitateetan berdintasun-planen eraikuntza sustatuz.

## 2.3. PLANAREN EGITURA: ARDATZAK, PROGRAMAK ETA NEURRIAK

Arestian aipatzen den moduan, Arabako Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako V. Plana bi gai hauen inguruko hausnarketa batetik abiatu da: aurreko planean definitutako berdintasun-egituren eta berdintasunerako politikak jorratzea bultzatzearen aldeko apustuaren iraunaldi-maila altua, eta Araban dagoen genero-ikuspegia. Arrazoi horiengatik jaio da plan hau norabide berean garatzen ari ziren pausoak bizkortzeko eta finkatzeko filosofiarekin; alegia, irmotasun-neurrien eta betearazte-eraginkortasunerako neurrien, eta lurraldearen gaineko eraginaren planteamendu posibilista batekin. Hala, planak bost urte irauten duenez, lau ardatz dituen eta helburu hauek dituen egitura bat aukeratu da.

- Arabako Foru Aldundiaren gobernu onaren proiektuaren oinarriak sendotzeko asmoa du «gobernu ona» ardatzak. Lau programatan jartzen du arreta: konpromiso politikoa, AFAko berdintasunerako trebakuntza, genero-ikuspegia lan-prozeduretan eta politika publikoetako partaidetza. Ardatz hau gobernu onaren estrategia indartzeko helburuan oinarritzen da eta IV. Planean ezarritako politikekin jarraitzen du, hautemandako behar berrietan neurriok sendotuz, eta esparruko juridiko eta programatiko orokorren tresna eta ikuspegi berdinekin bat etorriz.
- «Emakumeak ahalduntzea» ardatzak berdintasunaren inguruan indarra, autonomia eta kontzientzia (banakakoa eta taldekoa) lortzeko estrategiari egiten dio erreferentzia. Helburu hori lortzeko, gaitasunak, espazio propioak, trebetasunak edo baliabideak eta ondasunak ere eskuratzen dira. Ildo horretan, Berdintasunerako V. Foru Planak sarrera estrategikoko maila desberdinak daudela ulertzen du, eta ardatza hiru programa espezifikotan banatzen: emakumeen ahalduntze pertsonal eta kolektiborako laguntza, emakumeen ahalduntze ekonomikorako laguntza, eta emakumeen ahalduntze sozial eta politikorako laguntza.
- «Emakumeen aurkako indarkeria matxista desagerraraztea» ardatzari dagokionez, Emakumeen eta gizonen berdintasunerako, eta emakumeen kontrako indarkeria matxistarik gabeko bizitzentzako legean ezarritako esparru kontzeptualarekiko, eta esku-hartzeko ikuspegien, lehentasunen eta eremuen esparruekiko (Emakumeen eta gizonen berdintasunerako, eta emakumeen kontrako indarkeria matxistarik gabeko bizitzentzako legean ezarritakoak) egokia den emakumeen kontrako indarkeria matxistari aurre egiteko apustu bat egiten da. AFAren eskumenen esparruan hiru programa daude: ikerketa, sentsibilizazioa eta prestakuntza; detekzioa, arreta, erreparazioa eta ahalduntzea, eta koordinazioa.
- «Zainketen antolaketa soziala» ardatzak zainketen krisiari eman behar zaion erantzunean jartzen du fokua. Zainketen paradigma integral bati jarraikiz, lurralde arabarrean zainketez arduratzen diren egituren ikusgaitasun-sentsibilizazioaren, diagnostikoaren eta hobekuntzaren ikuspuntu batetik lan egitea du helburu. Hiru programaren inguruan garatzen dira: zainketa instituzionalak (instituzioek planteatutako eta instituzioen ardura diren zainketak), zainketa profesionalak

(zainketen merkatuaren sistema) eta zainketa ez profesionalak (familia- eta komunitate-mailan egiten diren zainketak).

Ardatz bakoitzak egitura hau du:

- Ardatzean planteatzen den esku-hartzerako esparru kontzeptual gisa jarduten duen aurkezpen bat. Ardatzaren aurkezpen honetan funtsezko kontzeptuak, alor bakoitza definitzen duten gai nuklearrak eta ardatza hedatzen den programak definitzen dira.
- Ardatz bakoitza programez osatuta dago, eta programa horiek helburu sorta bat definitzen dute ardatz horretan duen esku-hartzerako. Programa bakoitzak lan-esparru espezifiko batean jartzen du arreta; esaterako, esparru berean aplika daiteke programa, bai eta arestian komentatu den moduan helburu batean edo gehiagotan ere.
- Azkenik, programa bakoitzaren neurriak. Neurri bakoitzean hura garatzeko sartuta dauden sailak, zuzendaritzak edo organismoak zehazten dira (bi ardura-mailaren arabera), baita planaren iraunaldiaren araberako plangintza bat ere (urteen araberako bereizketa egiten da).

Guztira, 92 neurri aurkezten dira. Neurrien garapenaren arduradunak zeintzuk diren hobeto ulertze aldera, siglak erabili dira AFAren zuzendaritzak, AFAren organismo autonomoak eta kanpoko beste arduradun batzuk identifikatzeko:

| AFA-REN ZUZENDARITZAK ETA ORGANISMOAK | | ALH-AREN ENTITATEAK ETA ORGANISMOAK | |
|---|---|---|---|
| Lurralde Antolaketako Zuzendaritza | LAZ | Berdintasunerako Foru Kontseilua | BFK |
| Enplegu, Merkataritza eta Turismo Zuzendaritza | EMTZ | ALHko Emakumeen Mugimenduak | EM |
| Euskara eta Gobernu Irekiko Zuzendaritza | EGIZ | ALHko enpresa-erakundeak | EE |
| Finantza eta Aurrekontu Zuzendaritza | FAZ | Kuadrillak eta udalerriak | K/U |
| Funtzio Publikoko Zuzendaritza | FPZ | | |
| Kabinete eta Komunikazio Zuzendaritza | KKZ | | |
| Ogasun Zuzendaritza | OZ | | |
| Zerbitzu Orokorretako Zuzendaritza | ZOZ | | |
| Gizarte Zerbitzuen Zuzendaritza | GZZ | | |
| Berdintasun, Lankidetza eta Kulturartekotasun Zerbitzua | BLKZ | | |
| Gizarte Ongizaterako Foru Erakundea | GOFE | | |

| | | | |
|---|---|---|---|
| Gazteriaren Foru Erakundea | GFE | | |
| Organismoak eta sozietateak | O/S | | |
| Zuzendaritza guztiak | ZG | | |

Laburpen gisa, Arabako Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako V. Foru Planaren taula sintetikoa ematen da:

| ESKU HARTZEKO ESPARRUAK | PROGRAMAK | NEURRIAK |
|---|---|---|
| Gobernu ona | I. programa: konpromiso politikoa | 27 |
| | II. programa: berdintasunerako trebakuntza | |
| | III. programa: genero-ikuspegia lan-prozeduretan | |
| | IV. programa: politika publikoetan parte hartzea | |
| Emakumeen ahalduntzea | I. programa: Emakumeen ahalduntze pertsonal eta kolektiborako laguntza | 18 |
| | II. programa: Emakumeen ahalduntze ekonomikorako laguntza | |
| | III. programa: emakumeen ahalduntze sozial eta politikorako laguntza | |
| Emakumeen kontrako indarkeria matxista desagerraraztea | I. programa: ikerketa, sentsibilizazioa eta prestakuntza | 26 |
| | II. programa: Detekzioa, arreta, erreparazioa eta ahalduntzea | |
| | III. programa: koordinazioa | |
| Zainketen antolaketa soziala | I. programa. Zainketa instituzionalak | 21 |
| | II programa. Zainketa profesionalak | |
| | III programa. Zainketa ez profesionalak | |
| Kopurua, guztira | 13 programa | 92 neurri |

## GOBERNU ONA



1990eko hamarkadan zabalki garatutako Gobernu onaren kontzeptuak honi egiten dio erreferentzia: botere bat aplikatzeko borondate batengatik bereizgarri den boterea aplikatzeko modua, betiere ekitatea, eraginkortasuna, efikazia, gardentasuna, kontuak ematea, gaitasunen sorkuntza eta sozietate zibilean eta legezkotasunean parte hartzea bermatzen badira. Gainera, garapen ekonomiko eta sozialerako beharrezkoak diren baliabide guztiak politiken eskura jartzen dira.

«Gobernu on» batekin erlazionatutako ezaugarriak ez dira mugatzen aurreko paragrafoan aipatutakoetara; izan ere, parte-hartzeko demokrazia, justizia soziala, giza eskubideak edo antzeko kontzeptuen arabera handitu daitezke ezaugarriok, edo modu esklusiboagoan zein ondasun publikoak sortze aldera mota ezberdineko baliabideen hornidurara bideratuta egon daitezke. Edozein kasutan ere, azaldutakoak Gobernu onaren kontzeptuaren ezaugarri diren oinarrizko elementuak dira.

Beste alde batetik, Gobernu onaren kontzeptuak berdintasun-politikez harago badoa ere (testuinguru politiko jakin batean boterea dutenek hura aplikatzeko modu orokor bat da eta), egia da berdintasun-politikak behar bezala diseinatzen eta garatzen direla bermatzeko oinarrizko elementu bat ere dela.

Testuinguru horretan, V. Planak hau aitortzen du (EAEko emakumeen berdintasunerako VII. planak aitortzen duen bezala): *genero-ikuspegia jarduketa publikoan txertatzeak Gobernu Onari laguntzen dio zentzurik zabalenean eta, beraz, baita emakumeen eta gizonen berdintasunerako aurrerabideari ere.*

Beraz, jokabide publikoan genero-ikuspegia integratzea V. Plan honetan Gobernu onari dagokionez planteatzen den kontzeptua definitzen duen lehen elementua izango litzateke.

Emakumeen eta gizonen berdintasunerako 4/2005 Legearen (EGBL) printzipio orokor gisa agertzen denez eta nagusiki lege horren I. eta II. tituluetan azaltzen denez, aipatu behar da Emakumeen eta gizonen berdintasunerako, eta emakumeen kontrako indarkeria desagerrarazteko legearen onespenak sakontze bat ekarri duela eta estrategia honetan aldaketa garrantzitsuak sartu dituela.

Izan ere, Emakumeen eta gizonen berdintasunerako, eta emakumeen kontrako indarkeria matxistarik gabeko bizitzentzako legeak EGBLari dagozkion honako aldaketa-esparru hauek aipatzen ditu zioen azalpenean, Gobernu onaren ardatzerako garrantzitsuak direnak:

- Berdintasun-politikak garatzeko baliabide ekonomikoak, giza baliabideak eta baliabide teknikoak indartzea, eta berdintasunerako erakunde eta zerbitzuei aintzatespen handiagoa ematea, horiek benetako lidergoa izan dezaten berdintasun-politiken sustatzaile gisa, bai eta emakumeen kontrako indarkeria matxistaren kontrako jokabidean ere.
- Euskal botere publiko guztietan berdintasun-politikak sustatzeko funtsezkoak diren elementuak modu orokorrean ezartzen direla ezartzeko neurriak, hala nola planak, zerbitzu espezializatuak, prestakuntza, emakumeen ordezkaritzaren sustapena erabakiak hartzeko guneetan edo berdintasuna sustatzeko neurriak araudian eta dirulaguntza publikoetan eta kontratazio publikoan, estatuko Sektore publikoko kontratuen legeak berdintasun-klausulak txertatzeko ematen duen aukera berriez baliatuz.
- Euskal administrazio publikoen Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Erakundearteko Batzordean adostutako berdintasun- politiketarako kalitate-estandarrak (legean txertatutakoak), horiekin erlazionatuta 2018ko abenduaren 12ko bilkuran onetsitako akordioan jasotakoak.
- Euskal botere publikoetako langileei berdintasunaren arloko oinarrizko prestakuntza, mailakakoa, iraunkorra eta derrigorrezkoa ematea.
- Halaber, euskal botere publikoek laneko prozedura komunetan dituzten funtzioak eta egin beharreko jardueretan aldaketak ezartzen ditu.

Emakumeen eta gizonen berdintasunerako, eta emakumeen kontrako indarkeria matxistarik gabeko bizitzentzako legeak Berdintasun-politika publikoen kalitate-arauei egiten dien erreferentzia ezinbestekoa da. Izan ere, *emakumeen eta gizonen berdintasun-politika publikoen eraginkortasuna eta efizientzia* hobetzeko helburuarekin euskal administrazio publikoek (Eusko Jaurlaritzak, Foru Aldundiak eta EUDELek) hartu duten helburu eta tresna bat da, zeinak arreta Gobernu onaren ardatzerako funtsezko elementuetan jartzen baitu.

Arauen edukia eta haiek egituratzeko modua gainetik azaldu baino lehen, beharrezkoa da arauak definitzeko garatutako lan-prozesuaren esparruan berdintasun-politika publikoen barruan kalitate gisa ulertutakoaren definizioa ematea dokumentu honetan, Gobernu onaren kontzeptuarekin harreman filosofikoa baitu. Zehazki: «*Ahalik eta lasterren emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna lortzeko sexuan oinarritutako desparekotasun sozial eta egiturazkoari aurre egiten dioten, eta emakumeen askatasuna, autonomia eta bizitza-kalitatea bermatzen duten neurrien, arauen, prozeduren, tresnen eta jardueren sorta da berdintasun-politika publikoen kalitatea*».

Kalitate-arauak bi bloke handitan multzokatzen dira, eta horietako bakoitzak aldagai desberdinak ditu:

## Egiturazko baldintzak

- Emakumeen eta gizonen berdintasunerako administrazio-unitate espezifikoak.
- Emakumeen eta gizonen berdintasunerako plangintza.
- Berdintasunerako berariazko araudia.
- Berdintasunerako barne-planak.
- Berdintasunaren arloko koordinazio-egiturak.
- Elkarrizketa sozialerako organoak.

Lehen bloke honekin erlazionatutako aldagaiak «oinarrizko baldintza» gisa definitzen dira, eta hau esaten dute: *«aldagai hauek berdintasun-politika guztiak garatzeko oinarri dira»*.

### Genero-ikuspegia lan-prozeduretan

- Genero-ikuspegia barne hartzen duten aurrekontuak.
- Estatistikak eta ikerketak.
- Berdintasuneko prestakuntza ematea.
- Enplegu publikorako sarbidea, eta enplegu publikoa eskaintzea eta sustatzea.
- Berdintasuna araudian.
- Berdintasun-klausulak dirulaguntzetan eta kontratu publikoetan.
- Genero-ikuspegia sektoreetako eta zeharkako planetan.

Bestalde, «baldintza osagarri» gisa ezagutzen diren bigarren blokeko aldagaiak guztiz beharrezkoak dira berdintasun-politika publikoak garatzeko. Gainera, oinarrizko baldintzak hartzen dituzte euskarri.

Definitutako aldagai bakoitza oinarrizko parametroak bereizten, zehazten eta definitzen dituzten elementu sorta batean zabaltzen da; beraz, elementu horiek guztiek betez edo garatuz gero, aldagaia erabat estalita egongo dela ulertuko da.

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako V. Foru Planaren bitartez, arau-aginduen betetzean ere arreta jartzen duen Gobernu onaren logikaren ezartze progresiboarekin jarraitzearen alde apustu egiten du AFAk. Horretarako, lau programa sortzen ditu, eta programa horiek, laneko ohiko egitura, prestakuntza eta prozedurekin erlazionatuta egoteaz gain, politika publikoen parte-hartzean ere esku hartu nahi dute.

- Konpromiso politikoa

Jadanik indarrean dauden lan- eta koordinazio-egituretatik eta beste batzuk sartzetik (hala nola arlo-batzordeak) abiatuta, programa honen logika nagusia hauetan dago oinarrituta: lehendabizi, egitura horien sendotzean, eta bigarrenik berdintasunerako plangintzaren eta haren ebaluazioaren, eta berdintasun-politikak garatzeko baliabideen hobekuntzan. Horrez gain, programak lurraldeari ere jartzen dio arreta, kuadrilla eta udalerri-mailetan berdintasun-politikekin erlazionatutako konpromiso politikoa areagotzeko helburuaren bidez, modu horretan ALHaren Berdintasunerako Teknikarien Sarea babesten eta kuadrillen mainstreaming-aren lanarekin jarraitzeko.

- Berdintasunerako trebakuntza

Berdintasun-gidalerroak behar bezala garatzeko nahitaezko baldintza. AFAko politikariak eta teknikariak ardatz honen protagonistak dira, eta ardatzak hauen inguruan jarduten du: AFAren berdintasunaren arloko prestakuntza-plana, koordinazio-egituretarako formakuntza-ibilbideen diseinua, eta formakuntza-plan eta/edo -ekintza foraletan berdintasun-edukiak sartzeko lana.

- Genero-ikuspegia lan-prozeduretan

Lan-prozedurak (kalitate-arauetako oinarrizko baldintza delakoak) hirugarren programa honen esku-hartze esparruak dira. Dagoeneko hasita dauden lan-prozeduren hobekuntzan, sakontzean eta jarraipenean jartzen du nagusiki arreta hirugarren programa honek; adibidez, generoaren eraginaren aurreko txostenak, kontratuetan klausulak sartzea, dirulaguntzak eta lan-hitzarmenak, hizkuntza inklusibo eta ez-sexista, genero-ikuspegia barne hartzen duten aurrekontuak edo zerga-politika.

- Politika publikoetan parte hartzea

Politika publikoetan parte hartzearekin, eta politika horien demokrazia eta ekintza parte-hartzailearekin erlazionatutako gobernu onaren ikuspuntua sakontzen du laugarren ardatzak. Berdintasunerako Foru Kontseiluari izaera estrategiko bat emateko helburuetan arreta jartzeaz, eta emakumeen parte-hartzea eta parte-hartze hori berdintasunean oinarrituta parte hartzeko tokiko esparruetan gertatzea bultzatzeaz gain, xedea AFAren parte-hartzerako eta kontsulta publikorako esparruetara genero-ikuspegia eramatea da.

## GO 1. KONPROMISO POLITIKOA

### HELBURUAK

1. Berdintasunerako organo eta administrazio-unitateak indartzea.
2. Berdintasunerako plangintza eta haren ebaluazioa areagotzea eta hobetzea, bai eta berdintasun-politikak garatzeko baliabideak ere.
3. Konpromiso politikoa areagotzea, kuadrilla eta udalerri-mailetan.

| NEURRIAK | ORGANISMOAK/SAILAK/ZUZENDARITZAK/ZERBITZUAK | | URTEETARAKO PLANGINTZA | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | 1. MAILA | 2. MAILA | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 |
| GO.1.1. **Arabako Foru Aldundiaren Berdintasunerako Foru Arauan ezarritako aginduen jarraipena egitea**. Horretarako, berdintasunerako egitura, organo eta unitateei dagozkien elementu guztietan arreta jarriko da, eta Foru arautik bertatik egiten diren jarraipenekin eta ebaluazioarekin bat etorriko. | BLKZ | ZG | | | | | |
| GO.1.2. **Funtzioen analisia eta estrategia propio baten diseinua sailarteko koordinazio politikoaren** egitura bultzatzeko. | BLKZ | ZG | | | | | |
| GO.1.3. **Sailarteko koordinazio teknikoaren egitura sendotzea** berdintasun-politika koordinatuak garatzeko behar diren gaitasunaren, baliabideen eta prestakuntzaren bidez. | BLKZ | ZG | | | | | |
| GO.1.4. **Sailarteko koordinaziorako egitura formalak sortzea** (arlo-batzordeak) sektorearen araberako berdintasun-politikak garatzeko trebakuntzaren bidez. | ZG<br>BLKZ | | | | | | |
| GO.1.5. Egituren presentziaren, funtzionamenduaren eta egituretako langile espezializatuen jarraipena egitea 50 pertsona baino gehiagoko **organismo autonomoetan eta erakunde publikoetan**, eta erakunde publikoen kapitala jasotzen duten **partzuergoetan, fundazioetan eta partaidetzapeko enpresetan** berdintasun-politikak garatzeko. | BLKZ | GOFE<br>GFE<br>O/S | | | | | |
| GO.1.6. Erakundearteko koordinazioaren egituretan parte-hartzea mantentzea. | BLKZ | | | | | | |
| | | | | | | | |
| GO.1.7. **Berdintasuna sustatzera eramaten duten neurriak sartuko diren sektoreen araberako plan estrategikoak identifikatzea**, | ZG | BLKZ | | | | | |

| | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| eta ebaluazio-adierazleak ezartzea neurri horien eragina ezagutze aldera. | | | | | | | |
| **GO.1.8.** Saileko arlo-batzordean egin diren **sail bakoitzaren urteroko berdintasun-planen diseinua, onespena, ezarpena eta ebaluazioa**. | ZG | BLKZ | | | | | |
| **GO.1.9. Planteatzen diren helburuekin eta neurriekin bat datozen aurrekontu espezifikoak sailen berdintasun-plangintza guztietan aplikatzea**, bai eta baliabideak, langile espezializatuak, daten aldez aurreko ezarpena eta jarraipen-sistemak ere | ZG | BLKZ | | | | | |
| **GO.1.10. Kudeaketa publikoko kontu-ematea bultzatzea berdintasunaren arloan, politiken ebaluazioaren emaitzetatik abiatuta**, komunikazio-sistema baten diseinuaren eta aplikazioaren bitartez. | BLKZ<br>ZG | | | | | | |
| | | | | | | | |
| **GO.1.11. Lurraldean esku hartzeko eredua finkatzeko estrategia** bat diseinatzea. | BLKZ | LAZ<br>K/U | | | | | |
| **GO.1.12. Lurraldeko koordinazio politikorako mahai** bat sortzea eta garatzea; hartatik berdintasun-politiketarako ikuspegia eta haien buruzagitza sortu behar da. | BLKZ | LAZ<br>K/U | | | | | |
| **GO.1.13. Teknikarien lurraldeko sarearen eta AFAren arteko koordinazioa** bultzatzea eta dinamizatzea. | BLKZ | K/U | | | | | |
| **GO.1.14.** Kuadrilla eta udalerrietarako berdintasun arloko oraingo finantzaketa-mekanismoa **birformulatzea**. | BLKZ | K/U | | | | | |
| **GO.1.15. Mainstreamingaren eta lurraldeko gobernu onaren garapenerako estrategiaren ezarpenerako urteroko laguntza eta aholkularitza**; estrategia hori kalitate-adierazleen urteroko aurrerapenean zehazten da. | BLKZ | K/U | | | | | |
| **GO.1.16. Berdintasun-baliabide gehigarriak** aztertzea eta bolumenarengatik eta jarduerengatik haien beharrak dituzten kuadrillei ematea. | BLKZ | LAZ<br>FAZ<br>K/U | | | | | |

| GO 2. BERDINTASUNERAKO TREBAKUNTZA | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| HELBURUAK | | | | | | | |
| 1. AFAko langile guztiak prestatzea, baita politikariak ere | | | | | | | |
| NEURRIAK | ORGANISMOAK/SAILAK/ZUZENDARITZAK/ZERBITZUAK | | URTEETARAKO PLANGINTZA | | | | |
| | 1. MAILA | 2. MAILA | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 |
| GO.2.1. AFAk onetsitako **berdintasunaren arloko prestakuntza-plana** (2018-2024) ezartzen jarraitzea. | FPZ<br>BLKZ | ZG | | | | | |
| GO.2.2. Jarduera politiko eta teknikorako egokiak diren berdintasunerako **prestakuntza-ibilbideak** diseinatzea, sailarteko koordinazio politiko eta teknikoen egituretan, eta arlo-batzordeetan hautemandako beharren arabera. | FPZ<br>BLKZ | ZG | | | | | |
| GO.2.3. **Prestakuntza-plan edo -ekintza foralak** identifikatzea; haietan garrantzitsua izan behar du berdintasun-edukiak sartzeak eta horretarako prestakuntza-materialak sortzeak. | FPZ<br>BLKZ | ZG<br>GOFE | | | | | |

| GO 3. GENERO-IKUSPEGIA LANEKO PROZEDURETAN | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| HELBURUAK | | | | | | | |
| 1. Lan-prozeduretan genero-ikuspegia sartzeko sistematika areagotzea eta jarraipen-sistemen bitartez prozedura horien kalitatea bermatzea. | | | | | | | |
| NEURRIAK | ORGANISMOAK/SAILAK/ZUZENDARITZAK/ZERBITZUAK | | URTEETARAKO PLANGINTZA | | | | |
| | 1. MAILA | 2. MAILA | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 |
| GO.3.1. **Generoarekiko eraginaren aurreko txostenak hobeto idazteko *ad hoc* tresna bat diseinatzea** txosten horietan dauden sendotasunak, ahultasunak eta hobetzeko puntuak identifikatzeko. | BLKZ | ZG | | | | | |
| GO.3.2. AFAren **kontratuetan, dirulaguntzetan eta hitzarmenetan** berdintasun-klausulak sartzeari buruzko jarraipen-tresna bat diseinatzea. | BLKZ | ZG | | | | | |
| GO.3.3. Testuetan eta irudietan hizkuntza inklusibo ez-sexista modu sistematikoan erabiltzea lortzearen helburuarekin jarraitzea, eta **testuen eta irudien kontrolerako sistema bat diseinatzea (laginen analisiaren bitartez)** hobetzeko puntuak identifikatze eta esku hartzeko proposamenak diseinatze aldera. | BLKZ | ZG | | | | | |
| GO.3.4. **Aurrekontuak diseinatzeko** gidalerroetan genero-ikuspegia integratzeko aginduarekin erlazionatutako lan-prozesua garatzen jarraitzea, aztertzen diren aurrekontu-programa kopurua urtero handiagotuz. | FAZ | BLKZ<br>ZG | | | | | |
| GO.3.5. Generoaren analisiaren arloan Arabako Foru Aldundiaren eskumeneko **zerga-politikaren** zein elementu garatzen jarrai daitekeen baloratzera zuzendutako analisi bat garatzea, hurrengo urteetarako lan-lerroak adoste aldera. | OZ | BLKZ | | | | | |

| GO 4. POLITIKA PUBLIKOETAN PARTE HARTZEA | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| HELBURUAK | | | | | | | |
| 1. Politika publikoetan genero-ikuspegia duen parte-hartzea bultzatzea.<br>2. Berdintasunaren arloan parte hartzen duten egituren parte-hartzeko gaitasuna eta eragina hobetzea. | | | | | | | |
| NEURRIAK | ORGANISMOAK/SAILAK/ZUZENDARITZAK/ZERBITZUAK | | URTEETARAKO PLANGINTZA | | | | |
| | 1. MAILA | 2. MAILA | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 |
| **GO.4.1.** Arabako Foru Aldundiak sustatutako **parte-hartzeko eta kontsulta publikorako esparruen** analisia haietan genero-ikuspegia txertatzeko, garatutako parte hartzeko moduen (besteak beste, ordutegiak, deialdiak, jakinarazpenak) analisiaren eta hobetzeko eta esku hartzeko esparruen identifikazioaren bitartez. | ZG | BLKZ | | | | | |
| **GO.4.2. AFAko Berdintasunerako Foru Kontseilua eraldatzeko prozesu bat garatzea**, hari izaera estrategikoago bat eta eragin-ahalmen handiago bat emateko. | BLKZ | BFK<br>EM | | | | | |
| **GO.4.3. Eskualdeko batzordeetan eta tokiko foroetan** emakumeen parte-hartzea sustatzeko estrategia bat (berdintasunean oinarrituta) diseinatzea eta garatzea. | BLKZ | K/U | | | | | |

## AHALDUNTZEA



Ahalduntzearen estrategia Emakumeari buruzko Nazio Batuen III. Mundu Batzarrean erabili zuten (Nairobi, 1985) eta IV. Mundu Batzarrean hobetu garatu eta gehiago sakondu zen (Pekin, 1995).

Batzarra egitea mugarri eta erreferente bat izan zen emakumeek munduan zuten egoeraren analisian, eta egoera horri aurre egiteko neurri eta estrategien definizioan (nazionalak eta nazioartekoak).

Batzar horretan, fokua «emakumetik» generoaren ikuspegira eraman zen, eta horrek esan nahi zuen sozietatearen egitura osoa, eta emakumeen eta gizonen arteko harreman guztiak berriz ebaluatu behar zirela emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna indartzeko. Ikuspegi-aldaketa horri esker, emakumeen eskubideak giza eskubideak direla berretsi zen, eta genero-berdintasuna interes unibertsaleko gai bat dela eta sozietate osoari onurak ekartzen dizkiola.

Arestian aipatutako batzarrean funtsezko bi estrategia abiatu ziren: generoaren *mainstreaming*a eta emakumeak ahalduntzea.

Harrezkero, bi ikuspuntu horiek berdintasun-politiketan sartzeko estrategiak abiarazi dituzte mundu osoko erakundeek.

Pertsonek beren bizitzei eragiten dizkieten erabakiei buruzko autoritatea eta boterea areagotzea da **ahalduntzea**. Emakumeek banaka eta taldeka kontzientzia hartzeko prozesua da, eta prozesu horri esker gehiago parte hartzen dute erabakiak hartzeko, boterea eskuratzeko eta besteengan eragina izateko prozesuetan.

Prozesu hori banakakoa da, alde batetik, emakume bakoitzak bere mendekotasunaren eta eskubide propioen inguruan duen kontzientziazioan garapen pertsonal bat dagoelako. Horrek bere autonomia eta botere pertsonala finkatzen ditu besteengan eragina izate eta erabakiak hartze aldera,

Beraz, emakume bakoitzak bere kontzientziaren eta identitate propioaren eraikuntzan prozesu pertsonal bat lantzen du. Identitate horren funtsezko elementu gisa ahalduntzea nabarmentzen da, indarra eta autonomia lortzeko estrategia gisa. Ahalduntzeari esker, emakumeak baliabide, ondasun, gaitasun, trebetasun eta espazioez hornitzen dira beren bizitza bizi ahal izateko; hala, zapalketa dekonstruitzen eta desegiten da beste alternatiba batzuk sortzeko helburuarekin. Ez da pertsonarekin zerikusia duen botere bat edo kanpoko

gauza bat, emakumeek beren boterea barneratzeko prozesuak baizik. Izateko, bizitzeko, pentsatzeko, jarduteko eta sentitzeko modu bat da.

Alabaina, prozesuak kolektiboa izan behar du ezinbestez, emakumeen interesak haien artean harremanetan daudelako, ez baliabide material eta sinbolikoetarako sarbidean, eta horien erabileran eta kontrolean duten boterea areagotzeko bakarrik, erabakiak hartzearen eta gizarte-aldaketan parte hartzearen ondorioz eragina lortzearen ondoriozko onuretan duten boterea areagotzeko ere, posizio kolektibo irmoago batetik.

Ildo horretatik, prozesua ez da banakora mugatzen; taldearen eremura ere zabaltzen da. Emakumeek banan-banan egindako lana (indibidualtasunetik eta subjektibotasunetik abiatuta) lagungarria izango da interes kolektiboen alde borrokatzeko; hau da, genero-interesen alde.

Beraz, emakumeen ahalduntzea berdintasunerantz aurrera egiteko estrategia bat dela ulertu behar da. Horretarako, emakumeen garapen pertsonala eta kolektiboa garatzeko, eta generoen eraikuntza tradizionala, emakumeek egitura horretan jokatzen duten mendekotasun-rola, eta emakumeen eta gizonen arteko desparekotasuna eztabaidatzeko tresna erabilgarriak eman behar dira

Beste alde batetik, emakumeen ahalduntzeaz ari garenean balioen aldaketa batez ari gara nahitaez. Diskriminazioak eta desparekotasunak egotearen erantzule diren eta gizartean oraindik nagusi diren genero-estereotipoei aurre egin behar diegu. Balioak aldatu gabe, ezin da gizartea eraldatu.

Emakumeen eta gizonen berdintasunerako, eta emakumeen kontrako indarkeria matxistarik gabeko bizitzentzako legearen 3. artikuluan hori aipatzen da emakumeen ahalduntzearen inguruan, euskal botere publikoek berdintasunaren arloan dituzten jokabideak arautu eta bideratu behar dituzte printzipio orokorren barruan. Lege honen ondorioetarako eta arestian aipatutako ildoari jarraituz, emakumeen ahalduntzetzat jotzen da «*emakumeek egiten duten prozesua emakume izateagatik jasaten duten desberdintasun- eta diskriminazio-egoera estrukturalaz banaka eta taldeka jabetzeko. Emakumeen ahalduntzetzat jotzen da, halaber, emakumeek eskumenak, boterea eta kontrola eskuratzeko aukera ematen duen gauzatutako prozesua beren bizitzei buruzko erabaki estrategikoak hartu ahal izateko, eta bizitzaren zenbait alderditan generoagatiko berdintasunik eza eta diskriminazioa sendotzen eta iraunarazten dituzten egiturak eta erakundeak eraldatu ahal izateko*».

Ezin dugu ahaztu gure helburua balio-aldaketa hori gizonetan ere gertatzeko lan egiteak izan behar duela. Horretarako, modu mailakatuan eredu eta rol tradizionalak zalantzan jarriko zaizkie, haien maskulinitatea ere zalantzan jarrita emakumeen eta gizonen berdintasunaren sustatzean aliatuak eta zuzeneko partaide izan daitezen.

EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VII. Planaren planteamenduaren ikuspegiarekin bat etorriz, emakumeen ahalduntzeari eta esku-hartze publikoaren

etorkizunari ekiteko beharra aipatzen da, maila guztiei eragiten dien (pertsonala, kolektiboa, generokoa eta soziala) tresna, eta eraldaketa eta ikaskuntza-prozesu gisa.

Ikuspuntu historiko batetik ikusita, kalitatezko eta aukera-berdintasunak eskaintzen dituzten lanpostu ordainduetarako sarbidea ezinbestekoa izan da independentzia ekonomikoa lortzeko eta, hortaz, emakumeen emantzipazio soziala ere. Haatik, ekoizpen-ekonomiaren barruko kalitatezko lanpostuetako soldata-arrakala ezin da kontuan hartu denboraren, zainketen eta ordaindu gabeko ekonomia erreproduktiboaren arrakaletan esku hartu gabe. Zentzu horretan, enpleguaren bultzada emakumeen ahalduntzearen ardatzaren programa gisa aurkezten da, betiere Zainketak ardatzaren programarekin bat etorriz.

Egungo egoerari erreparatzeko eta Arabako Lurralde Historikoan emakumeen ahalduntzearekin lotutako hiru programa indartzeko beharra ikusten da V. Plan honetan:

- ✓ Emakumeen ahalduntze pertsonal eta kolektiborako laguntza
- ✓ Emakumeen ahalduntze ekonomikorako laguntza
- ✓ Emakumeen ahalduntze sozial eta politikorako laguntza

Jarraian, hitzartutako programa bakoitzari dagozkien neurri guztiak zerrendatzen dira.

.

| A 1. EMAKUMEEN AHALDUNTZE PERTSONALA ETA KOLEKTIBOA | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| HELBURUAK | | | | | | | |
| 1. Lurralde arabar osoan LAIA estrategia berdintasunerako eta ahalduntzerako tresna gisa doitzea eta finkatzea.<br>2. AFAren ekintza publikoko sailen zeharkako parte-hartzea areagotzea, eta, horretarako, horiek LAIAn parte hartzea.<br>3. LAIAren jardueretan ikuspegi intersekzionala zabaltzea.<br>4. Landa-inguruetako emakumeen eten digitalari aurre egitea.<br>5. Lurraldeko neska eta emakume gazteentzat zuzendutako ahalduntze-ekintzen kopurua handitzea.<br>6. LGTBI kolektiboko pertsona arabarren ahalduntzea areagotzea.<br>7. LAIAn parte hartzen duten gizonen kopurua handitzea. | | | | | | | |
| NEURRIAK | ORGANISMOAK/SAILAK/ZUZENDARITZAK/ZERBITZUAK | | URTEETARAKO PLANGINTZA | | | | |
| | 1. MAILA | 2. MAILA | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 |
| **A.1.1.** LAIAren sei urteko ibilbidetik eta balantzetik abiatuta, **bertako partaide diren guztien artean hausnarketa kolektibo bat egitea**. | BLKZ<br>K/U<br>BFK | LAZ | | | | | |
| **A.1.2. Jarraipen-metodologia berrikustea eta proiektuak aztertzea** horiek kuadrilletan izaten ari duten **eragina ebaluatzeko asmoz**, estrategia eguneratzeko eta, hala balegokio, doitzeko helburuarekin, betiere ekimena etengabe hobetu nahian. | BLKZ | K/U | | | | | |
| **A.1.3.** LAIAn parte hartzen duten **irabazi-asmorik gabeko elkarteen eta entitateen proiektuen (dirulaguntzak jaso dituztenak) presentzia areagotzea**. | BLKZ | K/U | | | | | |
| | | | | | | | |
| **A.1.4. AFAren arlo-batzordeetan** LAIA aplikatzetik erator daitezkeen jarduerak bultzatzeko eta haiek zeharkako modu batean koordinatzeko **berariazko esparru bat gehitzea**. | BLKZ<br>ZG | | | | | | |
| | | | | | | | |
| **A.1.5. Dirulaguntza publiko eta pribatuen esparruan ikuspegi intersekzional bat izatea** helburu gisa duten kolektiboaren pribilegio-/zapalketa-egoeren aniztasuna aitortzen eta ezagutarazten duten **ikuspegi intersekzionaleko proiektuak bultzatzeko**. | BLKZ | | | | | | |
| | | | | | | | |
| **A.1.6. Tresna digitalen inguruko prestakuntza jarraituko eredu bateratu bat martxan jartzea**, kuadrilletako emakumeen elkarte-sareari zuzenduta. | BLKZ | | | | | | |

| | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | | | | | |
| **A.1.7. Partaideen eta lurraldean abian diren ekintzen mapaketa diagnostiko** bat egitea ahalduntze feministaren ikuspegitik esku-hartzea bultzatzeko jardunbide egokiak, gabeziak eta aukerak hautemateko helburuarekin. | BLKZ | K/U<br>EM | | | | | |
| **A.1.8. Eskola-komunitateari, IGEei, gaztelekuei eta abarri zuzendutako estrategia komun bat diseinatzea neska eta emakume gazteen ahalduntzean**, aniztasun sexualaren eta genero-aniztasunaren aberastasuna lortu nahian estereotipoen eztabaidatzean eta jokaera oneko harremanen sustatzean **fokuratuta dauden jardueren kopurua handitzeko**. | BLKZ<br>GFE | K/U | | | | | |
| | | | | | | | |
| **A.1.9.** Politika publikoetan aniztasun sexuala eta genero-aniztasuna sartzeko moduari buruzko **hausnarketa bat egiteko eta ekintzak hartzeko esparru bat sustatzea**. | BLKZ<br>K/U | | | | | | |
| | | | | | | | |
| **A.1.10. ALHan berdintasunaren alde dauden gizonekin mapaketa, ebaluazio eta lan-hobekuntza bat egitea** abian diren lan-lerroak (aitatasunak, erantzunkidetasuna, indarkeriak, subjektibotasuna eta balio-aldaketa, etab.) eta horiek emakumeen ahalduntzean zer-nolako ekarpen egin ditzaketen identifikatzeko. | BLKZ | K/U | | | | | |

| A 2. EMAKUMEEN AHALDUNTZE EKONOMIKOA | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| HELBURUAK | | | | | | | |
| 1. Pobrezia-arriskuko egoerak identifikatzea.<br>2. Emakumeen ahalduntze ekonomikoa bultzatzea.<br>3. Planetaren tokiko ikuspuntutik eta ikuspuntu globaletik emakumeen pobrezia-egoera ezagutaraztea eta salatzea. | | | | | | | |
| NEURRIAK | ORGANISMOAK/SAILAK/ZUZENDARITZAK/ZERBITZUAK | | URTEETARAKO PLANGINTZA | | | | |
| | 1. MAILA | 2. MAILA | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 |
| A.2.1. «Pobreziaren feminizazioa. Arabako 6 kuadrillari buruzko azterlana» (2019) ikerketan identifikatzen diren txirotasun-arriskuko egoerak identifikatzeko aukera ematen duten **generoaren desparekotasun-adierazleen inguruan ekintza espezifikoan diseinatzea eta martxan jartzea**. | BLKZ | GOFE<br>EMTZ<br>LAZ | | | | | |
| | | | | | | | |
| A.2.2. **M.3 Kuadrilletan proiektuak bultzatzea**, «ALAVAfemprende» lurralde-interkonexioaren ikuspegiarekin | EMTZ<br>K/U | BLKZ<br>LAZ | | | | | |
| | | | | | | | |
| A.2.3. **Elkarkidetasun- eta kooperazio-esparruak ezagutaraztea** ikuspuntu global/lokal batetik lan-sinergiak sortzeko helburuarekin, giza garapenaren ikuspuntu eta ikuspuntu feminista bat aplikatuta. | BLKZ | | | | | | |
| A.2.4. **AFAren bizikidetasun- eta aniztasun-estrategian genero-ikuspegia sartzea**, estereotipoek eta zurrumurruek emakume immigranteen bizitzetan dituzten eragin anitzak identifikatuta. | BLKZ | K/U | | | | | |

## A 3. EMAKUMEEN AHALDUNTZE SOZIALA ETA POLITIKOA

HELBURUAK

1. Lurraldeko emakumeen elkarte-sarea sustatzea.
2. Tokiko eta kuadrilletako foroen eta batzordeen intzidentzia politikoa areagotzea.
3. Tokiko lanpostu politikoetan dauden gizonak berdintasunaren eta emakumeen ahalduntzearen alde sentsibilizatzera eta prestakuntza jasotzera bultzatzea.

| NEURRIAK | ORGANISMOAK/SAILAK/ZUZENDARITZAK/ZERBITZUAK | | URTEETARAKO PLANGINTZA | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | 1. MAILA | 2. MAILA | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 |
| A.3.1. Emakumeen eta gizonen berdintasuna erdiesteko helburua duten jarduerak garatzen dituzten irabazi-asmorik gabeko elkarte eta entitateetarako dirulaguntzen deialdiarekin erlazionatuta, ALHko emakumeen elkarteak laguntzea aholkularitza teknikoa eta haien proiektuen jarraipena eskainiz. | BLKZ | BFK<br>EM | | | | | |
| A.3.2. ALHko emakumeen elkarteen artean jakintza eta jardunbide egokiak partekatzeko esparruak sortzen dituen programa bat diseinatzea. | BLKZ | BFK<br>EM | | | | | |
| | | | | | | | |
| A.3.3. Foroetan eta batzordeetan abian jarritako prozesuei laguntzea, tokiko politika publikoen inguruko hausnarketa- eta kontsulta-esparru izan daitezen, aldi berean udal-administrazioekin eta kuadrillen administrazioekin komunikazio-bideak ezarrita. | BLKZ | K/U<br>EM | | | | | |
| | | | | | | | |
| A.3.4. Gizonduz programarekin batera koordinatuta, AFAko gizonezko politikari eta teknikariak berdintasunaren alde inplikatzeko esku-hartze estrategiak diseinatzea. | BLKZ | ZG<br>K/U | | | | | |

## EMAKUMEEN KONTRAKO INDARKERIA MATXISTA DESAGERRARAZTEA



Emakumeen aurkako indarkeria matxista desagerrarazteko ardatza esku hartzeko hiru arloren inguruan egituratuko da, Emakumeen eta gizonen berdintasunerako, eta emakumeen kontrako indarkeria matxistarik gabeko bizitzentzako legearen artikuluekin eta EAEn gaur egun dagoen plangintza-tresnarekin (Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VII. Plana) bat datozenak: ikerketa, sentsibilizazioa, prebentzioa eta prestakuntza; detekzioa, arreta eta erreparazioa, eta erakundearteko koordinazioa.

### Terminologia

Emakumeen eta gizonen berdintasunerako, eta emakumeen kontrako indarkeria matxistarik gabeko bizitzentzako legean aipatutako **«emakumeen kontrako indarkeria matxista”** terminoa erabiltzen da, eta ez orain arte erabilitako «emakumeen kontrako indarkeria» terminoa. Sistema sozial baten (hari eusten dion eskema heteropatriarkal baten produktu dena) babesean gertatu den giza eskubide baten urratzea konpontzeko ardura duen administrazioaren esku-hartze handiagoa dakar aldaketa horrek. Gainera, indarkeria honen formak eta esparruak zabaltzen ditu administrazio publikoaren maila guztien jokabideetan kontuan har daitezen. Esamolde berria honetan datza: “emakume izateagatik emakumeen aurka egiten den indarkeria oro hartzen du, haur eta nerabeak eta emakume transexualak barne, edo neurriz kanpo eragiten dien indarkeria oro, eremu publikoan zein pribatuan. Indarkeria ekintzaz zein ez-egitez gauza daiteke, eta hori gauzatzeko bitartekoak fisikoak, psikologikoak edo ekonomikoak izan daitezke, mehatxuak, larderiak eta hertsapenak barne, baldin eta horien ondorioz kalte, sufrimendu edo kalte fisikoa, sexuala, psikologikoa, soziala, sozioekonomikoa edo ondarezkoa gertatzen bada.

Modu berezian, indarkeria horretatik **bizirik irten diren biktimentzako erreparazioaren kontzeptua** barne hartzen da, **hauen antzeko helburuak dituena**: leheneratzea, ordainak jasotzea, errehabilitazioa, asebetetzea eta ez errepikatzeko bermea.

### Justifikazioa

Emakumeen eta gizonen berdintasunerako, eta emakumeen kontrako indarkeria matxistarik gabeko bizitzentzako legeak esparru kontzeptual bat egituratzen du. Haren bidez, indarkeria matxistaren inguruko ezaguerak (lehen zeinuetatik indarkeria matxistaren inguruan

sentsibilizatzeko, eta hura prebenitzeko eta hautemateko), eta arreta integral baterako eta biktimen erreparaziorako proposamenak sustatzen dituzten politika publikoak bideratu behar dira. Horretarako dauden langileen prestakuntza egoki baten eta printzipio nagusi gisa birbiktimizazioa saihesten duen erakundearteko koordinazio baten zimenduak finkatu behar dira.

### Emakumeen kontrako indarkeria matxistaren funtzio soziala

Esparru kontzeptuan honetan, emakumeen kontrako indarkeria matxistak:

- Giza eskubideak urratzen ditu
- Lehen mailako arazo sozial bat da
- Lehen mailako osasun publikoko arazo bat da
- Botere-harreman desparekatuen eta emakumeen kontrako diskriminazioaren seinale da

Beharrezkoa da administrazio publikoaren jokaera zehazten duen edozein ikuspuntutatik indarkeria honen funtzio soziala nabarmentzea; hots, indarkeria matxistaren helburua generoaren arabera dauden, eta emakumeei (haien portaera, harremanak, mugimenduak, helburuak, nahiak eta abar kontrolatzeko modukoak badira) soilik edo neurriz kanpo eragiten dieten egiturazko desparekotasunak betikotzea dela azpimarratzea.

Generoaren berdintasunean aurrerapauso argiak eman dituen testuinguru aldakor batean, onartu behar da berdintasunezko eta indarkeria matxistarik gabeko gizarte baterako bidea ez dela lineala, eta emakumeen autonomiaren eta ahalduntzearen kontrako erreakzioak daudela; zenbaitetan, erreakzio horien ondorioz indarkeria areagotzen da arrisku handiko momentuetan (alegia, emakumeen beren kabuz erabakitzeko eskubidea baliatzen duten momentuetan). Halaber, onartu behar da generoaren estereotipoak, eta emakumeen eta gizonen artean harremanak izateko moduak eraldatzeko banakako, taldeko eta gizarteko erresistentziak daudela bai esparru publikoetan, bai pribatuetan.

Arrazoi horiengatik, herritartasun guztiaren sentsibilizazioa eta kontzientziazioa areagotu behar dira (indarkeria matxistaren biktimak barne) defendatzeko eta aktiboki laguntza bilatzeko daukaten legezko eskubidea antzemate aldera. Horrez gain, arreta- eta babes-neurriak hartu behar dira bizirik irten diren biktimen inguruko pertsonentzat (indarkeriaren eraginpean etengabe edo unean-unean egoteagatik biktimizatzen direnak), bereziki bikotekideen eta bikotekide ohien erasoak jasan dituzten seme-alabentzat. Kasu horietan, haien interesen babesak ezin ditu alde batera utzi puntu garrantzitsu batzuk; besteak beste, neskak, mutilak eta nerabeak aitaren indarkeriaren edo amaren bikotekide berriaren indarkeriaren zuzeneko biktima izan daitezkeela, esposizioagatik biktimak direla amak tratu txarrak jasotzen baditu (bere autoritatea zalantzan jartzen delako eta adingabekoen

garapenerako funtsezkoa den lotura-pertsona bati balioa kentzen zaiolako) eta, gainera, biktima bikario bihur daitezkeela.

Emakumeen kontrako indarkeria matxistaren inguruko politika integral bat sortzeko, indarkeria horrek ingurunean duen eragina eta bizirik irten diren biktimei laguntzen dieten pertsonengan (ingurune afektibo hurbilekoak edo kontrol- eta eraso-portaera argiei aurre egiteko sentiberatasun nahikoa dutenak) izan dituen ondorioak ikusi behar dira. Erasotzailearen helburua argi dago: emakumeak bakartzea eta emakumearen testigantza jartzeko ekarpenak egitea indarkeriarako arrazoiak argudiatuta. Arrazoi horiek ez dira inoiz eta ezein baldintzapean onargarriak.

### Erasotzaileen zigorgabetasuna eta bizirik irten diren biktimen ahalduntzea

Indarkeriaren prebentzioak hura sortzen duten egiturazko kausak lantzera egon behar du bideratuta, baina baita kausa horiek agertu ondoren pertsonen jarrerak larriagotzea saihestera ere. Ekintzen bidez eta ezer ez egiteagatik eragin daiteke indarkeria matxista. Ildo horretan, emakumeez gain gizarte osoa barne hartzen duten jokabideak areagotu behar dira, batik bat indarkeria horren erantzule direnak eta *ikasitako zigorgabetasunetik* abiatuta emakumeen kontrako kontrol- eta indarkeria-jokaerak onartzen, sustatzen edo normalizatzen dituztenak.

Mekanismo desberdinen bitartez erasotzaileek ikasitako jokabidea da *ikasitako zigorgabetasuna*: erasoen ondorengo isiltasuna «giro deserosoak» saihesteko, asmo txarrarekin egin ez duelako uste osoa, norbait zapuztu, eraso, bortxatu edo norbaiti tratu txarrak eman dizkiola ez onartzea eta abar. Izan ere, umezarotik hau ikasten dute haurrek: erasoek ez dutela ondoriorik, neskak isiltzea nahiago dutela eta inguruneak gogorrago zigortzen dituela erasoei aurre egiten dietenak erasotzaileak baino.

Erasotzaileen erantzukizunaren antzemateak, eta haien jokabideen zalantzatzeak eta gaitzespen sozialak ez du arreta jarri behar zigor-proposamenetan bakarrik; izan ere, garrantzitsua da hezkuntza-politikak garatzea (batez ere haurrentzat eta nerabeentzat), kontuan hartuta politika horien presentziak mugak dituela indarkeria legezkotzat hartzen eta indarkeria maskulinitatearekin erlazionatzen duen testuingurua aldatzen ez bada, eta politika horiek jarrera positiboen eta harremanetarako modu egokien parametro bihurtzen dela.

Bestalde, ezinbestekoa da ahalduntzearen ikuspegi batetik lan egitea bizirik irten diren biktimen prebentzioan eta arretan. Horrek esan nahi du agentzia eta erabakitzeko-ahalmena indartzeko aukerak zabaldu behar direla, aldi berean erabaki horiek bizitza arriskuan jarri gabe hartzen direla bermatuta.

Zentzu horretan, ahalduntzea segurtasuna da, eta emakume guztiek ezin dute beren kabuz segurtasunaz gozatu. Taldeko segurtasun-estrategiak pentsatu behar dira, ingurunea eta emakumeen eta haien menpe daudenen erreferentziazko komunitateak barne hartzen dituztenak, emakumeen mugikortasuna mugatzen dituztenak ordezkatzeko. Emakume guztiek laguntza jaso behar dute erasotzailearen jarreretatik eratorritako beldurrei aurre

egiteko, baina baita genero-rol tradizionalak hausten edo zalantzan jartzen dituzten beldurrei ere; amorruaren adierazpenak eta asertziozko jokabideak ez dira inoiz onartu behar.

Helburu horiek erdietsiz gero, ahalduntzea lortu dugula esan ahalko dugu, hori autoestimua dela esan beharrik gabe. Modu horretan, beste emakume batzuekin egoteko botere bat bultzatu ahalko da, eta bizirik irten diren biktimak haiei dagozkien politika publikoen subjektu aktibo bihurtzea lortuko da indar kolektibo horretatik.

Emakume guztien kontrako indarkeria matxista, aniztasuna kontuan hartuz

Kontuan hartuta emakumeek eta, zehazki, sozialki emakume gisa irakurtzen diren gorputz eta identitateek (trans emakumeak kasu) haurtzarotik jasaten dutela indarkeria, administrazio publikoetatik egiten den sentsibilizazioak eta indarkeriak arreta jarri behar du indarkeria-forma espezifiko honetan eta, gainera, laguntza-mekanismoak doitu behar ditu indarkeria hori jasaten duten kolektiboen behar desberdinak asebetetzeko.

Emakumeak, haien bizitzaren zikloan zehar, indarkeria fisikoa, psikologikoa, sexuala eta ekonomikoa jasan dezakete, baina mehatxuei, larderiei eta derrigortzeak ere jasaten dituzte, eta horien amaierako emaitza min, sufrimendu edo kalte fisikoa, sexuala, psikologikoa, soziala, sozioekonomikoa edo ondarezkoa da.

Gaur egun, emakumeen kontrako indarkeria matxistaren esparruek bikotekidea eta bikotekide ohia barne hartzen dituzte, bai eta familia ere, baina horietatik harago doaz. Garrantzitsua da administrazio publikoek: indarkeria eta jazarpen sexualaren eta genero arrazoiengatiko indarkeria eta jazarpenaren prebentzio- eta arreta-ekintzak sartzea lan-, hezkuntza- eta kirol-esparruetan; emakumeentzat seguruak diren aisialdi- eta jai-esparruen erakuntzan aktiboki eta elkarrekin lan egitea; elkarrekin lan egitea osasun-sistemak genero-egoerarengatik, eta bizitzen duten egiturazko eta zuzeneko indarkeriarengatik emakumeek dituzten ondoezak behar bezala trata ditzan; elkarrekin lan egitea gizartean indarkeria matxistarekiko tolerantziarik ez duen kultura bat sortzeko, bereziki komunikabideetako indarkeria sinbolikoaren erreprodukzioari erreparatuz.

Aipatzekoa da ingurune birtualeko indarkeria, gero eta gehiago eguneroko bizitzan sartuta dagoena. Bertan, bizkortasunak, anonimotasunak eta mezuen zabaltze hedatuak indarkeria matxista zabaltzen eta areagotzen den toki bat sortzen dute, eta horrek ez die emakumeei soilik eragiten, bazik eta batez ere informatzeko, lanean aritzeko eta iritzia emateko eskubidea egikaritzen dituzten aktibista femeninoei ere.

Emakumeen eta gizonen berdintasunerako, eta emakumeen kontrako indarkeria matxistarik gabeko bizitzentzako legearen VII. kapituluko 1. ataleko, Xedapen orokorrei buruzkoa, 50. artikuluan indarkeria matxistaren formak zerrendatzen dira; besteak beste, hauek: bikote edo bikote ohi heterosexual batean emakumeen aurkako indarkeria (genero-indarkeria), familia barrukoa edo etxekoa, indarkeria sexuala, feminizidioa, emakumeen eta nesken salerosketa, esplotazio sexuala, emakumeen genitalen mozketa, ezkontza behartuak eta bestelako

jokabide tradizional kaltegarriak, derrigortzea edo askatasun-gabetze arbitrarioa, tortura, indarkeria instituzionala, jazarpena, genero-indarkeria politikoa, indarkeria digitala eta sare sozialetakoa, indarkeria obstetrikoa, sexu- eta erreprodukzio-eskubideen urraketa, eta emakumeen eta nesken duintasuna, osotasuna edo askatasuna urratzen edo urra dezakeen indarkeriaren beste edozein forma, nazioarteko itunetan, zigor-kode espainiarrean edo estatuko zein erkidegoko araudian xedatuta baldin badago.

Azkenik, administrazio publikoaren politika guztiak ikuspegi intersekzionala kontuan hartuta sortu behar dira. Horrek esan nahi du «biktimaren profil» bat dagoela dioen ideia baztertu behar dela eta inoiz emakume guztiek aipatu diren indarkeria-forma askotarikoetako baten bat jasan dezaketela ulertu behar dela. Kontuan izan behar da indarkeriak eragin desberdina duela emakume bakoitzean, eta eragin horren ondorioz emakumea geldiaraztearen edo bizitza osorako markatuta geratzearen erantzukizun gehiena inguruneak ematen duen erantzuna dela.

Emakume bakoitzaren eta testuinguru baten barruan eraikitzen den historia pertsonalaren araberakoa da indarkeriari ematen zaion erantzuna, baina emakume guztiek beren hitzak sinesten dituen eta bakoitzaren behar partikularretatik abiatuta indarkeria horrek eragindako mina sendatzen lagunduko dien ingurune bat behar dute. Hori dela eta, politika publikoek modu koordinatuan lan egin behar dute laguntza-sare trinko eta koherente bat sortzeko, emakume-talde bakoitzean indarkeria matxistaren aurkako narratibak eta erresistentziak egituratzen dituzten funtsezko elementu horien gainean.

Emakumeen kontrako indarkeria matxistaren desagerpenean aurrera egiteko behar diren ekintzek osatzen duten lan integralaren eredu izatea da Arabako Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako V. Foru Planaren asmoa. Horretarako, planaren ekintzak hiru programa osagarritan taldekatzen dira.

I. programa: ikerketa, sentsibilizazioa eta prestakuntza. Emakumeen kontrako indarkeria matxista giza eskubideen urraketa bat dela ulertzen duen kontzientzia sozial baten sorreran ekarpenak egitea du helburu. Horretarako, indarkeria sakonki ezagutu behar da gizarteari indarkeria honen eta haren biktimen inguruko mezuak bidaltzeko aukera ematen duten ikerketa eta diagnostiko kokatuen bidez. Hori gauzatzeko, berdintasunaren arloan prestakuntza duten arlo desberdinetako profesionalen talde handi bat eduki behar da, Aldundiak gai honen inguruan garatu duen ikuspuntua babestu ahal izateko.

II. programa: detekzioa, arreta, erreparazioa eta ahalduntzea. Indarkeria matxistatik bizirik irten diren biktimak eta haien ingurunea du helburu, bai eta haiek babesteko lan egiten duten profesionalen eta herritarren sare bat sortzea ere. Horretarako, kontrol- eta indarkeria-jokabideen hautemate goiztiarrerako tresna eta prozedura egokiak garatu behar dira, baita biktimei arreta konpontzaile eta ahalduntzaile bat ematen dien sostengu instituzionalaren sistema bat; alegia, indarkeriak eragindako kalteak arintzen eta aurre egiteko garatutako gaitasunak garatzen dituen sistema bat.

III. programa: koordinazioa. Instituzioak elkarrekin komunikatzera eta jardutera behartzen ditu lurralde eta erkidego mailan, bai indarkeriarako arreta espezifikoa eskaintzen duten organismoen artean, bai indarkeria matxistaren aurkako politika egokiak garatzeko genero-ikuspegia sartu behar dituzten instituzio guztien artean. **Besteak beste, lan-sistemen hobekuntza eta baliabideen kudeaketa eraginkorra helburu dituen behar bezalako arretaren ezinbesteko tresna bat da koordinazio hori.**

| IM 1. IKERKETA, SENTSIBILIZAZIOA ETA PRESTAKUNTZA | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| HELBURUAK | | | | | | | |
| 1. Indarkeria matxistaren arloan ezagutza gehiago izatea.<br>2. Sentsibilizazio- eta prebentzio-proiektuak planifikatzea eta garatzea.<br>3. Derrigorrezko hasierako prestakuntza jarraitua bermatzea.<br>4. Gizon eta gazte arabarrak indarkeria matxistaren prebentzioan eta desagerpenean inplikatzea. | | | | | | | |
| NEURRIAK | ORGANISMOAK/SAILAK/ZUZENDARITZAK/ZERBITZUAK | | URTEETARAKO PLANGINTZA | | | | |
| | 1. MAILA | 2. MAILA | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 |
| IM.1.1. Askotariko emakumeen beharrak asebetetzeko pistak ematen dituzten eta ikuspegi intersekzionala aplikatzen duten ikerketa kokatuak sustatzea. | BLKZ<br>GZZ | | | | | | |
| | | | | | | | |
| IM.1.2. Bide-orri estrategiko bat sortzea, zeinan indarkeria matxistaren sentsibilizazio- eta prebentzio-programak teilakatzen baitira banakako esku-hartzeak (LAIAren esparrukoak), berdintasun-tekniken sarea eta hezkuntza-komunitatearen gainetik geratuta. | BLKZ | K/U | | | | | |
| IM.1.3. Sentsibilizazio- eta prebentzio-ekintzen hartzaile diren pertsonen espektroa zabaltzea. Gizarte arabarraren aniztasuna kontuan izatea (adinari, lurraldeei eta intersekzionalitateari dagokienez), politika hauetan gizonak sartzeko zereginean arreta berezia jarriz. | BLKZ | K/U | | | | | |
| IM.1.4. Indarkeria matxista desagerrarazteko sentsibilizazio- eta prebentzio-jokabideen diseinua eta inplementazioa, gizon eta mutil gazteei zuzenduta. | BLKZ | K/U<br>GFE | | | | | |
| | | | | | | | |
| IM.1.5. Langile guztientzako Jabetuz-en oinarrizko ikastaro baten bitartez GOFE eta AFArako prestakuntza sistematizatzea. | BLKZ<br>GOFE | FPZ | | | | | |
| IM.1.6. Erreparazioaren eta ez errepikatzeko kontzeptuen inguruko hausnarketa eta sakontzea. | | | | | | | |
| | | | | | | | |
| IM.1.7. Arabako futbol- eta saskibaloi-ikuskizun handietan sentsibilizazio-kanpaina handi bat garatzea, gizonak indarkeria matxistaren desagerpen-prozesuan inplikatzeko helburuarekin. | BLKZ<br>DCD | KKZ | | | | | |

| | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| IM.1.8. **Herritartasunarentzako gida bat editatzea**, zeinetan indarkeria matxista zer den eta egoera horietan zer egin behar den azaltzen baita. | GZZ<br>GOFE | BLKZ | | | | | |
| IM.1.9. Genero-indarkeriaren kontrako estatu-itunetik **datozen baliabideen kudeaketa koherentea eta eraginkorra**. | K/U | BLKZ | | | | | |

## IM 2. DETEKZIOA, ARRETA, ERREPARAZIOA ETA AHALDUNTZEA

**HELBURUAK**

1. Indarkeria matxisten inguruko hautemate-mekanismoak eta -programak garatzea.
2. Arreta-baliabideak finkatzea eta sendotzea
3. Erreparaziorako eta ez errepikatzeko erantzun instituzionala egituratzea
4. Emakume guztiek indarkeriarik gabe bizitzeko duten eskubidea bermatzea

| NEURRIAK | ORGANISMOAK/SAILAK/ZUZENDARITZAK/ZERBITZUAK | | URTEETARAKO PLANGINTZA | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | 1. MAILA | 2. MAILA | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 |
| IM.2.1. Indarkeria prebenitzeko **prozedurak eta estrategiak hobetzea**. | BLKZ | | | | | | |
| IM.2.2. Genero-indarkerian espezializatutako gizarte-zerbitzu foralen sarearen eragina ebaluatzea emakumeen kontrako indarkeria matxistari aurre egiteko moduari, hartaz berreskuratzeari, hura erreparatzeari eta ez errepikatzeari dagokionez. | GOFE | BLKZ | | | | | |
| | | | | | | | |
| IM.2.3. **Hegoak foru-zerbitzua finkatzea eta sendotzea** eskainitako baliabideak hobetzearren. | GOFE | | | | | | |
| IM.2.4. **Indarkeria matxistarekin erlazionatutako foru-baliabideei buruzko informazioa hobetzea** AFAren eta GOFEaren webguneen bidez. | GOFE | EGIZ | | | | | |
| **IM 2.5. Etxe-abegirako baliabideen foru-sarea finkatzea eta sendotzea.** | GOFE | | | | | | |
| | | | | | | | |
| **IM.2.6. Tokiko eta eskualdeko protokoloak ebaluatzea eta sustatzea**, erreferentzia gisa Emakumeen eta gizonen berdintasunerako, eta emakumeen kontrako indarkeria matxistarik gabeko bizitzentzako legea hartuta. Protokolo horiek sinatzea eta abian jartzea lortzea. | GOFE<br>K/U | BLKZ | | | | | |
| IM.2.7. **Berdintasunaren aldeko gizonen erakundearekin dagoen lankidetza garatzea eta sustatzea** gizonen sentsibilizaziorako eta jokabide matxistak desagerrarazteko, baita gizon bortitzentzako arretarako ere. | GOFE | BLKZ | | | | | |
| IM.2.8. Genero-indarkeriaren biktima-izaeraren **akreditazio administratiborako prozedura bat garatzea**. | GOFE | | | | | | |

| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| IM.2.9. Indarkeria matxistan espezializatutako GOFEaren zentro eta zerbitzuen estatutua garatzea eta onestea. | GOFE | | | | | | | |
| IM.2.10. Indarkeria matxistaren aurrean jarduteko protokolo bat sortzea GOFEaren Esku-hartze sozialerako sailerako. | GOFE | | | | | | | |
| IM.2.11. Indarkeria matxistaren aurkako GOFEaren Jokabide-protokolo bat garatzea, Esku hartzeko esparru bakoitzaren jokabide propio guztiak bateratzen dituena. | GOFE | | | | | | | |
| IM.2.12. Espedienteak modu elektronikoan izapidetzeko hobekuntza. | GOFE | | | | | | | |

| IM 3. KOORDINAZIOA | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| HELBURUAK | | | | | | | |
| 1. Emakumeen kontrako indarkeria matxistaren aurrean jokabide koordinatu eta eraginkor bat bermatzea. | | | | | | | |
| | ORGANISMOAK/SAILAK/ZUZENDARITZAK/ZERBITZUAK | | URTEETARAKO PLANGINTZA | | | | |
| | 1. MAILA | 2. MAILA | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 |
| IM.3.1. AFAko Indarkeriaren inguruko batzordea indartzea, GOFEaren, Berdintasun, Lankidetza eta Kulturartekotasun Zerbitzuaren, eta berdintasun-teknikarien sarearen arteko koordinazioa areagotuz. | GOFE<br>BLKZ<br>K/U | | | | | | |
| IM.3.2. Lurraldeko erakundearteko koordinazioari bultzada politikoa, jarraipena eta eraginkortasuna ematea. | GOFE | BLKZ<br>K/U | | | | | |
| IM.3.3. Protokolo eta ibilbide guztietan GOFEaren presentzia sustatzea. | GOFE<br>K/U | BLKZ | | | | | |
| IM.3.4. Inklusioaren inguruko programa foraletan genero-ikuspegia txertatzea. | GOFE | BLKZ | | | | | |
| IM 3.5. Indarrean dauden lankidetza-protokolo eta -hitzarmenen esparruetako lan-batzorde eta -taldeekin dagoen koordinazioarekin jarraitzea eta hura bultzatzea. | GOFE | | | | | | |

## ZAINKETEN ANTOLAKETA SOZIALA



**Azken hamarkada hauetan, ongizate-estatuen eta horiek zaintzaile gisa duten arduraren inguruko hainbat eztabaida egon dira.** Eztabaida horiek planteamendu teorikoetara eraman dira, eta horien helburua ongizate-eredu batetik (*welfare model*) zainketa-eredu batera (*care model*) igarotzea da (Izquierdo, 2003). Arabako Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako V. Foru Planean Zainketen antolaketa soziala (Daly eta Lewis, 2000) entitate publiko, pribatu eta komunitarioen arteko erantzukizun partekatutzat hartzen duen ikuspuntu baten aldeko apustua egiten da, botere publikoek zainketen hornidura unibertsala eta publikoa emateko duten oinarrizko erantzukizuna alde batera utzi gabe.

Ekonomia feminista, eta zainketaren etika eta ekonomia ere ardatz honen ikuspunturako oinarri gisa hartzen dira. Hala, lehenik eta behin, emakumeen eta gizonen arteko desparekotasun-harremanak dinamika ekonomikoen funtzionamendua azaltzeko funtsezko analisiaren aldagai gisa modu estrukturalean sartzeko beharra azpimarratzen du ekonomia feministak. Gainera, analisiaren erdigunean bizitzaren jasangarritasuna jartzen du, eta merkatuen funtzionamenduan arreta jartzen duten teoria ekonomiko klasikoen logika analitikoak fokutik kentzen. Sexuaren araberako lan-banaketa, zainketaren antolaketa soziala eta zainketaren ekonomia funtsezko gaiak dira analisi honetan. Hirugarrenik, ekonomia feministak ekarpen garrantzitsuak egiten dizkio emakumeen partaidetza ekonomikoaren ikasketari, eta lan-merkatutako desparekotasunak eta diskriminazioak nabarmentzen ditu. Halaber, ekarpenak egiten dizkio pobreziaren ikerketari eta analisiari, baliabide ekonomikoen sarbideari, eta politika ekonomikoei (maila orokor, tarteko eta zehatzetakoak). Horretarako, bestelako analisi-logiketan aurrerapausoak emateko, «urperatutako» errealitateak agerian jartzeko, eta politika ekonomiko, fiskal eta abarren diseinurako alternatibak eskaintzeko aukera ematen duten beste azalpen-elementu batzuk ematen dira.

Bere aldetik, zainketaren ekonomiak (ekonomia feministaren ezagutza teoriko eta kontzeptualaren zati bat) bizi diren sozietatean pertsonen biziraupena bermatzeko eguneroko jarduera eta jardunbide gisa deskribatzen du zainketaren kontzeptua. Ikuspegi kontzeptual

horren azpian, zainketaren ekonomiak xede orokor hauek ditu: gizarte kapitalisten dinamika ekonomikoan zainketaren lanaren rol sistemiko eta estrukturala agerian jartzea (etxeko lanak gehi dakizkioke lan horri) eta lan hori (gehienbat emakumeek egiten dutena) antolatzeko moduek langileen ibilbide pertsonalean, ekonomikoan eta bizitzakoan duten ondorioak nabarmentzea.

Oro har, egiaztapen hauek oinarri hartzen ditu ardatz honek: zainketen eredu soziala krisialdian dagoela, krisialdi horren erantzunak tradizioz ikusezina izan den eta aintzakotzat hartu ez den zainketen lana agerian jartzetik, erdigunean jartzetik eta lan horri balioa ematetik etorriko direla, modu estrukturalean emakumeen zainketen lanaren naturalizazioa ematen dela, eta zainketen eskakizun berriek, eta horiek eskaintzen dituzten egituren ezaugarriak eta mugak (maila desberdinetan) antolatzeko, lan egiteko eta esku hartzeko eredu desberdinak eskatuko dituztela, ahaztu gabe helburu orokorra bidezkoagoa eta berdintasunezkoa den antolaketa sozial batera igarotzea dela.

Erreferentziazko testuinguru programatikoan, EAEko Emakumeen Berdintasunerako VII. Planak, bere II. ardatzean, zainketen ekonomien eta zainketen antolaketa sozialaren eraldaketaren inguruan lan egiten du, eraldaketa horretarako estrategiak hiru programatan planteatuta: Berdintasuna eraldaketa sozial eta ekonomikorako beharrezko balio gisa aintzatestea, emakumeen autonomia ekonomikoa eta zainketen ekonomia feminista. Azken horretan dago nagusiki oinarrituta V. Planaren «Zainketen antolaketa soziala» ardatz honen ikuspegia.

Beste alde batetik, ezinbestekoa da 1/2022 Legeak, martxoaren 3koak, Emakumeen eta gizonen berdintasunerako, eta emakumeen kontrako indarkeria matxistarik gabeko bizitzentzakoak, definitutako testuingurua integratzea, 4/2005 Legean ez zegoen «*etxeko eta zainketen lanaren gaia*»*ri* buruzko planteamendu zabalago bat egiten du eta. Planteamendu horren helburua bizitzaren zainketa eta jasangarritasuna erdigunean jartzea oinarri duen eredu ekonomiko baterako aldaketa sustatzea da (ekonomia feministaren premisa kontzeptualak aplikatuta), eta aurreko legean aipatzen ez ziren kontzeptuak lantzen ditu, hala nola erantzunkidetasun soziala, eta bizitza pertsonalaren, familiarraren eta lanekoaren kontziliazio erantzunkidea. Zehazki, 1. ataleko 34. artikuluak («Etxeko lan eta zaintza-lan ez-ordainduak») modu zehatzean lan egiten du etxeko lanaren, eta haren begirunearen eta balorizazioaren inguruan. Gainera, betekizunak planteatzen ditu euskal botere publikoetarako, pertsona guztiek zainduak izateko eskubideari eta zaintzaileen laguntzari dagokienez. Atal bereko 35. artikuluak etxeko lanen eta zaintza-lanen erantzunkidetasun soziala bultzatzean jartzen du arreta, hauen bitartez: enplegu-egituren egokitzea, eta kultura eta praktika enpresariala eraldatzea (48. artikuluari erreferentzia eginez), zaintzen hornidura unibertsala eta publikoa (49. artikuluari erreferentzia eginez), eta etxeko lanen eta zaintza-lanen arloan gizonen erantzunkidetasuna, eta zaintzaren etikaren eta praktikaren orokortzea (norberaren eta besteen garapen eta ongizaterako bide gisa) bultzatzea.

Bestalde, VI. kapituluak («Bizitza pertsonalaren, familiarraren eta lanekoaren kontziliazio erantzunkidea») xedapen orokorreko 47. artikuluan honela definitzen du kontziliazio erantzunkidea: batetik, pertsonen betebehar eta beharrizan pertsonalei erantzuteko orduan bidezko oreka lortzeko xedea duten neurrien multzoa eta, bestetik, erakunde publikoek, gizonek eta enpresek zaintzetan erantzunkidetasuna lortzeko neurri guztiak, lan hori nagusiki emakumeek egin behar izan ez dezaten.

Hala, 48. artikuluak enpleguaren egituren egokitzea, eta kultura eta praktika enpresariala eraldatzea nabarmentzen ditu, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna bermatzen dituzten baldintzak sortzeko, bizitza pertsonalaren, familiarraren eta lanekoaren arteko kontziliazioa bermatzeko, eta etxeko lanean eta zaintza-lanean benetako erantzunkidetasun bat erdiesteko.

Azkenik, euskal botere publikoek zaintzen hornidura (merketasuna, malgutasuna, kalitatea eta zerbitzua erabiltzeko erraztasuna kontuan hartuta) sustatzeko duten erantzukizuna ezartzen du 49. artikuluak («Zaintzen hornidura unibertsala eta publikoa»); gainera, zainketa profesionalen sektoreko langileei baldintza duinak bermatu behar zaizkiela xedatzen da.

Zainketen arloan dauden desparekotasunen larritasuna, eta helburu programatikoen eta esparruko arauen helburuen garrantzian zuzenean proportzionala da zainketen inguruko eredu-aldaketa horretara aurrera egiteko dagoen garrantziarekiko eta beharrarekiko.

Ikuspegi posibilista, eta ikuspuntu orokorrago, erlazionatuago eta indarrean dagoen arau-esparru eta esparru programatikorako egokiago batetik, V. Planaren ardatz honek arreta jartzen du IV. Planeko neurri askotan, hobeto garatu behar direnak, IV. Planaren ebaluazio-prozesuan zehaztu den moduan.

Etorkizunak ardatzerako hasierako oinarrietan deskribatutakoa izaten jarraitzen du; hau da, zainketen antolaketa sozialean bidezko banaketa baterantz doan eredu batera aldatzea, baldin eta banaketa horrek sexu-genero ereduen erreprodukzioa eta zainketei ematen zaien begirada familista gainditzeko aukera ematen badu.

Modu horretan, hiru programekin lan egiteko aukera ematen duen estrategia bat planteatzen da, zaintzak diagnostikatzeko, agerian jartzeko, baloratzeko eta hobetzeko, une honetan Arabako Lurralde Historikoaren zainketen-esparrua edo -sistema osatzen duten hiru zainketa moten arabera:

- **Zainketa instituzionalak:** bizitzaren zikloaren administrazio publiko arabarraren parametroen barruan zainketak eskaintzen dituzten ekipamenduak eta zerbitzuak dira. Esparru instituzionaletik egiten diren zainketak hobetzeko eta zabaltzeko estrategia bat garatzea da programa honen xedea.
- **Zainketa profesionalak:** ordaindutako zainketa guztiak daude hauen artean, bai merkatu formalean, bai ezkutukoan eskaintzen direnak. Bizitzaren ziklo osoan zainketa-behar desberdinak asetzeko aurkitzen ditugun zainketa-lanen merkatu

osoari egiten dio erreferentzia. Zainketa profesionalak, eta horiek egiten diren testuinguruak baloratzeko eta hobetzeko estrategia bat garatzea da programa honen xedea.

- **Zainketa ez-profesionalak:** bai familiaren, bai komunitatearen bidez herritartasunak egiten dituen zainketa guztiak dira; ordaindu gabeko unibertsoaren barne daude, baina horregatik ez dute garrantzi gutxiago zainketaren eguneroko jardutean. Zainketa ez-profesionalak, eta horiek egiten diren testuinguruak agerian jartzeko, baloratzeko eta hobetzeko estrategia bat garatzea da programa honen xedea, aurreko bien eskema orokorrari jarraikiz.

Zaintza ez-profesionalei dagokienez, bereziki aipatu behar da emakume migratuen egoera. Jatorriaren arabera aldeak badaude ere, oro har, emakume migratuek zaintza-lanen eta etxeko zerbitzuaren ehuneko handi bat egiten dute, ia beti prekarietate-baldintzetan. Batez ere ezkutuko ekonomian lan egiten dutenez, ez dute gizarte-prestazio publikoen estaldurarik. Lan-jarduera hori funtsezkoa da bertako familientzat, bai eta iraupen luzeko zainketen eremuan gutxi finkatuta dagoen ongizate-ereduari eusteko ere

| ZAS 1. ZAINKETA INSTITUZIONALAK | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| HELBURUAK | | | | | | | | |
| 1. Zainketa instituzionalak hobetzeko eta zabaltzeko estrategia bat garatzea. | | | | | | | | |
| NEURRIAK | ORGANISMOAK/SAILAK/ZUZENDARITZAK/ZERBITZUAK | | URTEETARAKO PLANGINTZA | | | | | |
| | 1. MAILA | 2. MAILA | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 |
| **ZAS.1.1.** Harremanetan arreta jartzen duen Gizarea arreta-ereduaren proposamen teorikoan genero-ikuspegia txertatzea. | GOFE GZZ | BLKZ | | | | | |
| **ZAS.1.2.** GOFEan diziplinarteko eta sailarteko lantalde bat eratzea harremanetan arreta jartzen duen Gizarea arreta-eredua ezartzeko, ezagutzak sortzen dituena eta eskaintzen diren zainketei balio handiagoa emateko eragile izango dena. | GOFE GZZ | BLKZ | | | | | |
| **ZAS.1.3.** GOFEaren erabiltzaileentzako, familientzako eta profesionalentzako prestakuntza-ekintzak garatzea Gizareari buruzko informazioa eta harekin erlazionatutako ikaskuntza eta trebakuntza emateko helburuarekin. | GOFE GZZ | BLKZ | | | | | |
| **ZAS.1.4.** Gizarearen ikuspuntu teorikoa eta hartara egiten den hurreratze praktikoa ALHko zahar-egoitza publiko eta pribatuetan kontzeptualizatzen duen eskuliburu bat sortzea. | GOFE GZZ | BLKZ | | | | | |
| **ZAS.1.5**. Erabiltzaileentzako, familientzako, profesionalentzako eta orokorrean komunitatearentzako Gizarearekin erlazionatutako zabalkunde-ekintzak garatzea. | GOFE GZZ | BLKZ | | | | | |
| **ZAS.1.6.** Zentroetan eta zerbitzuetan ematen diren zainketetan GOFEko langileen ekarpenak agerian jartzen dituen kanpaina bat sortzea, erabiltzaileek, familiek eta komunitateak tratu eta entzute profesionala hobe ditzaten. | GOFE GZZ | BLKZ | | | | | |
| **ZAS. 1.7.** Autonomia eta mendekotasunerako arreta sustatzeko esparruan, pertsona zaurgarrien arretarako zerbitzu publikoak sortzea, zeinetan pertsonek beren bizitza-proiektuaren subjektu aktibo izaten jarrai baitezakete. | GOFE GZZ | | | | | | |

| ZAS 2. ZAINKETA PROFESIONALAK | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| HELBURUAK | | | | | | | |
| 1. Zainketa profesionalak, eta horiek egiten diren testuinguruak baloratzeko eta hobetzeko estrategia bat garatzea. | | | | | | | |
| NEURRIAK | ORGANISMOAK/SAILAK/ZUZENDARITZAK/ZERBITZUAK | | URTEETARAKO PLANGINTZA | | | | |
| | 1. MAILA | 2. MAILA | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 |
| ZAS.2.1. Adineko pertsonentzako zahar-etxeetan ematen den arretaren kalitate-adierazleen sistema bat diseinatzea, baliozkotzea eta pilotatzea, ematen diren zainketak neurtzeko eta haien jarraipena egiteko, eta azken finean zerbitzuak hobetzeko helburuarekin, merkatuak zainketen kalitatea okerragotzen ez duela eta zaintzaileen eskubideak urratzen ez dituela ziurtatuta. | GOFE GZZ | BLKZ | | | | | |
| ZAS.2.2. Lan-prozesua bultzatzeko, definitzeko eta haren jarraipena egiteko lantalde bat sortzea. | GOFE GZZ | BLKZ | | | | | |
| ZAS.2.3. Aurkezpen- eta informazio-jardunaldiak garatzea, baita hautatutako adierazle multzoaren balorazio teorikoaren ingurukoak ere. | GOFE GZZ | BLKZ | | | | | |
| ZAS.2.4. Zentro publiko eta pribatuetan kalitate-adierazleak ezartzea. | GOFE GZZ | BLKZ | | | | | |
| ZAS.2.5. Erabiltzaile posibleei zentroetan ematen diren zainketen kalitatearen berri ematen dien dosier/txosten bat sortzea. | GOFE GZZ | BLKZ | | | | | |
| ZAS.2.6. Autonomia eta mendekotasunerako arretarako sistemaren diru-prestazioak aztertzen dituen lantalde bat sortzea berdintasunean oinarrituta, aukera pribatu bat hautatzen denean mendekotasun-egoeretarako zainketen aintzatespenari, birbanaketari eta berrantolaketari mesede egiten dioten hobekuntza-proposamenak egiteko helburuarekin. | GOFE GZZ | | | | | | |
| ZAS.2.7. Mendekotasun-egoeran dauden pertsonen bizitza independentea sustatzeko laguntza-pertsonalerako diru-prestazio bat sortzea, laguntzaren beharra murrizten duen, eta autonomia pertsonaleko | GOFE GZZ | | | | | | |

| | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| prozesuei laguntzera eta haiek laguntzera bideratutako ikuspegi batekin. | | | | | | | |
| ZAS.2.8. Zainketekin lotutako lanpostuen aztarnategiak aktibatzeko programa bat bultzatzeko lan-prozesu bat garatzea, kalitatezko lanpostuak sortzeko premisatik abiatuta. | EMTZ<br>BLKZ | GOFE<br>GZZ | | | | | |
| ZAS.2.9. Justizia sozialaren eta generoaren irizpideak kontuan hartzen dituen zainketen balorizazioari buruzko biltzar bat antolatzea erakundeen artean; marko teoriko batez gain, elkartzeko eta hitz egiteko esparruak ezartzeko aukera ematen duena paradigma-aldaketarekin erlazionatutako adimen kolektiboa garatzeko. | GOFE<br>GZZ<br>BLKZ | | | | | | |
| ZAS.2.10. Berdintasun-irizpideak eta zainketak baloratzeko irizpideak txertatzea BeBai gizarte-zerbitzuetako jardunbide egokiak aintzatesteko. | GOFE<br>GZZ | | | | | | |
| ZAS.2.11. «Pertsonei etxean gizarte- eta osasun-arreta ematea» eta «Mendeko pertsonei gizarte-erakundeetan gizarte- eta osasun-arreta ematea» profesionaltasun-ziurtagirietarako sarbidea; ziurtagiriok biztanleria aktiboarentzat edo langabetuarentzat dira, bereziki ezkutuko lanetan zainketa-arloan lan egiten dutenentzat, araututako lan-aukeretan sartu ahal izateko. | GOFE<br>GZZ | EMTZ | | | | | |

| ZAS 3. ZAINKETA EZ-PROFESIONALAK | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| HELBURUAK | | | | | | | |
| 1. Zainketa ez-profesionalak, eta horiek egiten diren testuinguruak agerian jartzeko, baloratzeko eta hobetzeko estrategia bat garatzea. | | | | | | | |
| NEURRIAK | ORGANISMOAK/SAILAK/ZUZENDARITZAK/ZERBITZUAK | | URTEETARAKO PLANGINTZA | | | | |
| | 1. MAILA | 2. MAILA | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 |
| **ZAS.3.1.** Dirulaguntza instituzionalen deialdi bat diseinatzea eta ezartzea, edo lehendik dauden deialdietan irizpideak sartzea. Azken kasu horretan, irizpideek gizarte-zerbitzuen arreta behar duten pertsonen zainketa-beharrei erantzuten dieten formula kolektiboen garrantzia azpimarratu eta formula horiek bultzatzeko aukera eman behar diete sare sozialei eta antolatutako herritarrei (boluntarioak, elkarrekiko laguntzarako taldeak eta denbora-bankuak). | GOFE<br>GZZ | | | | | | |
| **ZAS.3.2.** Erantzukizun instituzionalarekin, gizarte-zerbitzuen arnasaldi-zerbitzuak bultzatzea, eguneroko zainketetatik arnasa hartzeko aukera ematen dutenak. | GOFE<br>GZZ | | | | | | |
| **ZAS.3.3.** Kontziliazioaren eta erantzunkidetasunaren arloetan neurriak garatzen dituzten ALHko sektore pribatuko enpresak (ekonomia sozialaren eta solidarioaren enpresak lehenetsiz) aintzatesteko eta sustatzeko lan-lerro bat diseinatzea eta garatzea. | BLKZ<br>EMTZ | GOFE<br>GZZ | | | | | |

# HIRUGARREN ATALA: PLANAREN KOORDINAZIORAKO, KUDEAKETARAKO, JARRAIPENERAKO ETA EBALUAZIORAKO EGITURAK ETA MEKANISMOAK

## 3.1. BERDINTASUNERAKO V. FORU PLANAREN KUDEAKETARAKO EGITURAK

Arabako Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako V. Foru Plana behar bezala garatu ahal izateko, garrantzitsua da eragileek modu artikulatu eta koordinatuan lan egitea eta Planaren garapenean, jarraipenean eta ebaluazioan arduratsuak izatea.

Dokumentu honetan egiten den planteamendua Planaren garapenerako antolakuntza-planteamendua bertan parte hartuko duten egituren oinarrizko deskribapenetik irudikatzea da, lana AFAren barrualdera eta ALHra zuzentzen dutenen, eta planean emakumeen eta gizonen berdintasunaren alde lan egiten dutenen artean bereiziz. Deskribapena oinarrizkoa da; izan ere, modu horretan gutxieneko lan-eremua ezartzen da (komuna egitura horietarako), baina betiere, malgutasun-irizpide batetik, dokumentu honetan aipatzen ez diren funtzioen garapenean aurrera egin daiteke. Deskribatutako egiturek antolaketa- eta funtzionamendu-dekretu edo hitzarmen bat atxikita badaukate, dekretu edo hitzarmen horretako funtzioei egingo zaie erreferentzia.

Bestetik, aipatu behar da jarraian deskribatuko diren egituretarako planteatu den estrategia neurri handi batean IV. Planaren testuinguruan eraikitako egiturak eta dinamikak finkatzean eta posible den neurrian haiek zabaltzean oinarritzen dela. Gainera, aurreko plangintzetako egitura antolaturen bat berreskuratu da (esaterako, arlo-batzordeak), IV. Planaren ebaluazioaren emaitzen arabera.

Deskribatzen diren egiturak parte hartzen dutenak dira, eta aldez aurretik Berdintasun, Lankidetza eta Kulturartekotasun Zerbitzuaren zeregina definituko da, V. Planaren bultzatzaile eta sustatzaile da eta.

Beraz, Berdintasun, Lankidetza eta Kulturartekotasun Zerbitzuak elkarrizketan arituko da parte hartzen duten egitura guztiekin, eta Planaren garapenean dauden egitura guztien multzorako koordinazio orokorreko, konpainiako eta aholkularitzako zereginak egingo ditu. AFAren esparruan, sailen eta zuzendaritzen konpainia- eta aholkularitza-organoa izango da Zerbitzua, sailak edo zuzendaritzak dauzkan jardute-aukeren arabera. Bestalde, erakundearteko koordinaziorako artekari lehenetsia izango da Zerbitzua, bai eta kuadrillekin eta udalerriekin egiten den lanaren garapenerako (ALHaren berdintasun teknikarien sarearekin dagoen harremanaren bidez) funtsezko pieza bat ere. Azkenik, emakumeen

elkarte-sarearekin, elkarte-sare feministarekin eta ALHaren elkarte-sare orokorrarekin dagoen harremanari dagokionez, Berdintasunerako Foru Kontseiluari eta Arabako beste erakunde sozial batzuei dinamizazioarekin laguntzen jarraituko da.

Beren lana AFAren barrualdera zuzentzen duten egiturak

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Sailarteko Batzorde Politikoa

Ezarritako egiturei jarraitutasuna emateko premisaren pean, sailarteko egituren (batzorde politikoa eta teknikoa) indarraldia berdintasunerako politiken lan-esparru eta zeharkakotasun-eremu gisa baliozkotzen da. Funtzionamenduari dagokionez, zeharkako modu batean bi esparruetarako edukiak bat etorrarazteko lan egingo dela azpimarratzen da, alderdi bakoitzaren osagarritasuna eta independentzia sustatzeko helburuarekin.

Oro har, Sailarteko Batzorde Politikoari V. Planaren garapen onena bermatzeko, eta dinamika administratiboek izan ditzaketen oztopoak edo eragozpenak gainditzeko beharrezko eztabaidak eta neurriak aurkitzeko funtzioa eskatzen zaio.

Une jakin batzuetan, eztabaidetan lagun diren edo eztabaidak errazten dituzten, eta garrantziko ikerketak eta ebaluazioak (edo eduki egokiak) aurkezten dituzten adituak erants ditzake batzordeak.

Foru Aldundiaren sailen eta foru organismo autonomoen zuzendariek osatzen dute batzordea, eta haren funtzioak *3/2018 Foru Dekretuan, urtarrilaren 23ko Foru Gobernuaren Kontseiluarenean, Arabako Lurralde Historikoan emakumeen eta gizonen berdintasunerako koordinazio-egituren arautzearen eta funtzionamenduaren onespenari buruzkoan* daude definituta:

- *Foru sektore publikoko sailen eta gainerako entitateen arteko eztabaida-organo iraunkorra izango da emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan; horrez gainera, esperientziak eta proposamenak eztabaidatzeko eta komunean jartzeko espazioa ere izango da, berdintasun-politika foralen kudeaketa eta emaitzak hobetzeko aukera ematen duten sinergiak sortzeko helburuarekin.*
- *Berdintasunaren arloan proposamenak aurkeztu eta gidalerroak ezarriko ditu, foru-sektore publikoko organismoen esku-hartzeak eta jarduketak koordinatze aldera. Edozein kasutan ere, erdietsi beharreko helburuak, garatu beharreko ekintza zehatzak, aurreikusitako egutegia, zenbatetsitako aurrekontua eta hura betetzeko baliabideak aipatu beharko dira.*
- *Sailei arauak edo bestelako ekintza zehatzak garatzea proposatzea Emakumeen eta gizonen berdintasunerako, eta emakumeen kontrako indarkeria matxistarik gabeko bizitzentzako legean xedatutakoa modu eraginkorrean betetzeko eta garatzeko. Foru sektore publiko osoan genero-zeharkakotasunaren ezartze-estrategia garatzeko behar diren baliabide guztiak ikertzea eta proposatzea.*

- *Emakumeen eta gizonen berdintasunaren foru-planaren aplikazio eraginkorra bultzatzea eta koordinatzea, proposamenak eginda eta ager daitezkeen oztopoei aurre egiteko irizpideak proposatuta.*
- *Foru Gobernuaren Kontseiluari Emakumeen eta gizonen berdintasunaren foru-planaren kontu estrategikoen jarraipenaren berri ematea.*
- *Emakumeen eta gizonen berdintasuna lortze aldera diseinatutako sailarteko plan, programa eta jarduketa-lerroak bultzatzea.*
- *Egindako ekintzen, eta erabilitako bide eta baliabideen betetzearen, garapenaren eta aplikazioaren jarraipena egitea urtean bi aldiz.*
- *Ezarritako aurreikuspenekin erlazionatuta egin diren ekintzen, eta erabili diren bideen eta baliabideen urteroko jarraipenari buruz Sailarteko Eragiketa Batzordeak egindako txostena onartzea.*
- *Sailarteko Batzorde Operatiboaren lana zuzentzea eta gainbegiratzea.*
- *Ezartzen zaizkion gainerako guztiak.*

Testuinguru honetan, beharrezkoa da gomendatzea Gobernu onaren ardatzaren neurrietako bat (GO.1.2) Plan honetan funtzioen analisia eta estrategia propio baten diseinuan arreta jartzen duela, sailarteko koordinazio politikoaren egitura bultzatzeko.

### Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Sailarteko Batzorde Operatiboa

Batzorde honek ikuspuntu zehatzago eta taktikoago bat eskaintzen du. Haren bidez, Planaren jarduketak lantzen dira, eta planaren hobekuntza-, jarraitutasun- eta egoera zehatzen gainditze-maila ikus daiteke. Orobat, aldi berean, AFAren barruko sailen jarduerei buruzko informazioa gurutzatzeko toki bat ere bada; hots, garrantzi handiko elementu bat, batez ere Gobernu onaren ardatzaren garapenaren bideragarritasunaren eta arrakastaren barruan.

Sailarteko Batzorde Politikoaren gertatzen den bezala, une jakin batzuetan, eztabaidetan lagun diren edo eztabaidak errazten dituzten, eta garrantziko ikerketak eta ebaluazioak (edo eduki egokiak) aurkezten dituzten adituak erants ditzake batzordeak.

Arabako Foru Aldundiaren sailen Ordezkaritza Teknikoen Buruzagitzek edo sail bakoitzean berdintasun-politikez arduratzen den funtzionarioak osatzen dute batzordea, eta haren funtzioak *3/2018 Foru Dekretuan, urtarrilaren 23ko Foru Gobernuaren Kontseiluarenean, Arabako Lurralde Historikoan emakumeen eta gizonen berdintasunerako koordinazio-egituren arautzearen eta funtzionamenduaren onespenari buruzkoan* ere daude definituta:

- *Sailen arteko ekintza koordinatuaren programazioa, jarraipena eta bultzada kudeatzea.*
- *Emakumeen eta gizonen berdintasunerako foru-planaren jarduketak koordinatzea eta haiei laguntza ematea, programazio orokorrak garatuta.*

- *Sailarteko Batzorde Politikoari Foru plana garatzeko eta ezartzeko komenigarriak diren ekintzak proposatzea.*
- *Esperientziak eta proposamenak komunean jartzeko espazio izatea, berdintasun-politiken kudeaketa optimizatze aldera sinergiak sortzeko helburuarekin.*
- *Sailei informazioa eta aholkularitza ematea prozedura eta ekintza administratiboetan genero-ikuspegia txertatzeko.*
- *Egindako jarduketen, eta erabilitako bide eta baliabideen jarraipenaren urteroko txosten bat sortzea eta Sailarteko Batzorde Politikoari onartzeko bidaltzea, Planean aurreikusitako helburuak lortzeari buruzko balorazio batekin.*
- *Horretarako, sail bakoitzak egindako jarduketen, eta erabilitako bide eta baliabideen berri emango du.*
- *Sailarteko Batzorde Politikoaren bileretan jorratuko diren gaiak ikertzea, jakinaraztea eta proposatzea, eta batzordeko kideei beharrezko laguntza eta aholkularitza teknikoa ematea.*
- *Hala balegokio, entitate publiko edo pribatuen lankidetzetatik eratorritako lanen plangintzan, koordinazioan eta ezarpenean parte hartzea, emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan egiturazko eta egoeraren araberako gaiei buruzko txostenak eta balorazioak eskuratzeko helburuarekin.*
- *Sailarteko Batzorde Politikoak esleitzen dizkion gainerako guztiak.*

Batzorde politikoan bezala, honetan ere gogoratu behar da GO.1.3. ekintzak sailarteko koordinazio teknikoaren egitura sendotzean arreta jartzen duela berdintasun-politika koordinatuak garatzeko behar diren gaitasunaren, baliabideen eta prestakuntzaren bidez.

### Arlo-batzordeak

Arlo-batzordeen sorkuntza formalean lan egiteko beharra dagoela agerian jarri du IV. Planaren ebaluazioak, sail/zuzendaritza bakoitzean sektorearen araberako berdintasun-politiken diseinuan eta garapenean modu espezifikoan lan egitera zuzendutako esparruak sortzeko oinarrizko helburuarekin. Arlo-batzorde horiek (haien baliabideak giza baliabideen, eta baliabide material eta ekonomiko erabilgarrien arabera zehaztu beharko dira) funtzio hauen inguruan lan egingo dute (haietako batzuk Diputatuen Kontseiluaren 48/2010 Foru Dekretuan, urriaren 13koan, Emakumeen eta gizonen berdintasunerako arlo-batzordeen eraketaren, organizazioaren eta funtzionamenduaren Erregelamendua onesten duenean, daude oinarrituta):

- *Esku hartzeko sektore-arlo edo -esparru bakoitzean berdintasunaren inguruko urteroko jarduketak planifikatzea.*
- *Emakumeen eta gizonen berdintasunerako planean aipatutako jarduketak ezartzea.*
- *Berdintasunaren arloko prestakuntza-proposamenak egitea.*
- *Berdintasunaren arloko jarduketen urteroko kostua zenbatestea, dagozkion sailek onar dezaten.*

- *Sailen artean, eta Berdintasun, Lankidetza eta Kulturartekotasun Zerbitzuarekin beharrezko harreman- eta koordinazio-dinamiketan parte hartzea.*
- *Berdintasun-planaren plangintza hobetzeko proposamenak egitea.*
- *Urtero egiten diren berdintasunaren arloko jarduketak ebaluatzea.*

Aipatu behar da GO.1.4. ekintza sailarteko koordinaziorako egitura formalak sortzera (arlo-batzordeak) bideratuta dagoela, sektorearen araberako berdintasun-politikak garatzeko trebakuntzaren bidez.

Beren lana ALHra zuzentzen duten egiturak, eta bertan emakumeen eta gizonen berdintasunaren alde lan egiten duten langileak

### Lurraldeko koordinazio politikorako mahaia

V. Plan honen apustu eta proposamenetako bat da lurraldeko koordinazio politikorako mahai hau; izan ere, GO 1.12. neurrian zehazten da: lurraldeko koordinazio politikorako mahai bat sortzea eta garatzea; hartatik berdintasun-politiketarako ikuspegia eta haien buruzagitza sortu behar da.

Kuadrillen eta udalerrien ordezkariek osatzen dute lurraldeko koordinazio politikorako mahaia, eta funtzio hauetan jardungo du:

- Oinarrizko elementu komunak aztertzea eta definitzea; horien gainean lurraldeko ikuspegi eta ekintza bateratu bat behar da.
- Oinarrizko elementu komunak garatzeko urteroko bide-orri bat diseinatzea.
- Bide-orria garatzeko beharrezkoak diren baliabideak eskura jartzea.
- Emakumeen kontrako indarkeria matxistaren arloan, instituzioen erantzuna koordinatzeko estrategia espezifiko bat definitzea eta garatzea, eta datuak biltzeko sistemak bateratzea.
- Berdintasun-politiken oinarrizko elementu komunak kuadrillen eta udalerrien esparruetan egon daitezkeen beste plangintza estrategiko batzuekin koordinatzea.
- Zehazten diren gainerako eginkizun guztiak.

### ALHaren Berdintasunerako Teknikarien Sarea

Ikuspegi kontzeptual eta lan komuneko ikuspegi batekin Arabako berdintasun-politikak koordinatzeko oinarrizko egituretako bat da ALHaren Berdintasunerako Teknikarien Sarea. *AFAren, eta kuadrillen eta udalerrien artean (eta kuadrillen barruan) berdintasun-politiken estrategia koordinatzea* da haren helburu nagusia. Orain arte egindako lanak Teknikarien Sarearen garrantzia eta ahalmena bistaratu du, baita hainbat hobekuntza-behar eta -elementu ere.

Plan honetan egitura hau mantentzea proposatzen da, baita AFAren Berdintasun, Lankidetza eta Kulturartekotasun Zerbitzuak hura koordinatzea eta dinamizatzea ere.

Zentzu horretan, ALHaren Berdintasunerako Teknikarien Sareak garatu behar dituen eginkizunak modu xehatuan definitzea baino, beharrezkoagoa da, parte hartzeko esparru bat dela kontuan izanik, agerian jartzea sareak izendatu behar dituela garatu beharreko eginkizunak, eta urteroko lan-plan zehatz bat zehaztu. Halaber, finantzaketa-tresnak, LAIA eta dagoeneko plazaratu diren bestelako gaiei erantzuten saiatuko da.

Berdintasunerako Foru Kontseilua

Erakundeen arteko topaketa estrategikorako esparru bat da Berdintasunerako Foru Kontseilua, politika publikoetan emakumeak egon daitezen eta bertan parte har dezaten. Berdintasunaren alorrean lan egiten duten erakundeek edo entitateek (kontseiluaren parte izateko nahia adierazten dutenak) eta Kontseiluak gonbidatutako banakoek edo erakunde-ordezkariek osatzen dute. Kontseiluaren funtzioak 27/2011 Foru Dekretuak, apirilaren 5eko Diputatuen Kontseiluarenak, Arabako Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako kontseilua sortzen eta arautzen duen araudia onesten duenak, arautzen ditu:

- *Arabako Foru Aldundiaren emakumeen eta gizonen berdintasuneko politiken arduradun den sailak egindako kontsultak erantzutea eta haien inguruko aholkularitza ematea.*
- *Instituzioen ekintzen , eta berdintasunerako foru-planen sorreraren edo garapenaren inguruan proposamenak egitea eta jarduketa-lerroak proposatzea.*
- *Arabako Foru Aldundiaren eta Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Foru Planaren esparruaren barruan gauzatzen diren berdintasun-politikekin erlazionatuta egiten diren ekintzen jarraipena egitea.*
- *Elkarte-sareen (batik bat emakumeen elkarteen) parte-hartzea eta ahalduntzea bultzatzea.*
- *Berdintasunaren arloan lan egiten duten erakundeen arteko komunikazioa eta barne-harremana sustatzea.*
- *Erakunde publikoek, eta gai honetan lan egiten duten elkarteen eta erakundeen sareak gauzatzen dituzten programei eta jarduerei buruzko informazioa biltzea.*
- *Foru organoei jarduera nagusia berdintasunaren arloan gauzatzen duten elkarteen eta erakundeen proposamenak eta ekimenak jakinaraztea.*
- *Alternatiben analisia eta diseinua, eta ekintza-esparruan sentsibilizazio-ekintzei bide ematea eta haiek bultzatzea.*
- *Tresnen, baliabideen eta jardunbide egokien identifikazioa erraztea.*
- *Antzeko ezaugarriak dituzten beste kontseilu eta/edo organo batzuekin elkarlanean aritzea eta koordinatzea.*

Oinarri gisa dekretuan araututako funtzioen garapena hartuz, aipatu behar da V. Planean arau zehatz bat dagoela (GO.4.2.) AFAren Berdintasunerako Foru Kontseiluaren eraldaketa-prozesu bat garatzeko, hari izaera estrategikoago bat eta eragin-ahalmen handiagoa emateko xedearekin.

Eskualdeko batzordeak eta tokiko foroak

Eskualdeko batzordeak eta tokiko foroak Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako V. Foru Plana arreta jartzen dion beste egituretako bat da, GO.4.3. neurrian definitutako helburutik abiatuta (eskualdeko batzordeetan eta tokiko foruetan emakumeen parte-hartzea sustatzeko estrategia bat (berdintasunean oinarrituta) diseinatzea eta garatzea).

## 3.2. PLANAREN KUDEAKETA-, JARRAIPEN- ETA EBALUAZIO-SISTEMA

Aurreko atalean V. Planaren kudeaketa koordinaturako egiturak azaldu ondoren, azken atal honetan kudeaketa-, jarraipen- eta ebaluazio-sistema osatzen duten elementuak definitzen dira.

Kudeaketari dagokionez, elementu bakarra azpimarratu nahi da: Planari hura behar bezala garatzen dela bermatzeko beharrezkoak diren aurrekontu- eta giza baliabideak, eta baliabide materialak emateko beharra.

Emakumeen eta gizonen berdintasun-politiketan aurrerapausoak emateko konpromisoa eta borondate politikoa zehazteko lehentasunezko bidea da aurrekontu- eta baliabide-berme hori. Baliabiderik gabe (aurrekontu-baliabideak, urtero aurrekontu-ekitaldiak definitu behar direnak, giza baliabideak eta baliabide materialak) aurretik ikus daiteke V. Plan honek ezingo dituela garatu bertan aipatutako neurriak eta, beraz, ezingo dituela erdietsi azpimarratu nahi diren helburu eraldatzaileak.

Planaren jarraipen- eta -ebaluazio sistemari dagokionez, lehenik eta behin aipatu behar da zehaztasuna eta hobetzeko ahalmena berdintasun-politikek eta horien planek arrakasta izateko duten funtsezko elementua dela. Konpromiso politikoaz eta Plana aplikatzeko beharrezko baliabideak emateaz gain, V. Planak jarraipen- eta ebaluazio-sistema bat aplikatzea eskatzen du, neurrien garapen-gradu edo -mailari buruzko informazioa, eta aurrerapen nagusiei eta hautemandako oztopo-faktore nagusiei buruzko informazioa biltzeko aukera ematen duena, baita berrikuntzari dagokionez ebaluazioarekin erlazionatuago dauden beste gai batzuei buruzkoa ere, hala nola neurrien benetako eragina, eta esku-hartzea jaso duten biztanleek, herritarrek, taldeek eta abarrek nabaritutako eragina.

Horretarako, V. Planaren egiturak (ardatzak, programak, helburuak eta neurriak) jarraipen- eta ebaluazio-lana errazten du. Modu horretan, helburuekin lotutako (ikus V. Planaren 4. eranskina) eta neurri bakoitzerako adierazleak definitzen dira: 1. eta 2. mailako arduradunak, eta oinarrizko tenporalizazioa urte bakoitzeko (Planaren iraunaldian; alegia, 2022-2026).

Arabako Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako V. Foru Planaren ebaluazio- eta jarraipen-sistema bi denboratan garatzen da:

- Alde batetik, urteroko jarraipen-txostenen **ebaluazio jarraitua** (prozesuaren eta emaitzen dimentsioen jarraipenari lotuta nagusiki). Lan-tresna nagusia izango da. Jarraipen-txosten horren barruan, honako alderdi hauek kontuan hartuko dira:
  - *Aurrerapen kuantitatiboaren* maila (garatutako neurri kopurua eta garapen-maila).
  - Ardatz bakoitzak eta programa espezifiko bakoitzean *egindako jardueren erregistro xehatua*, urtero berdintasunaren arloan egindako jardueren *dokumentazio- eta xehetasun-ariketa kolektibo* bat egiteko premisaren pean.
- Beste alde batetik, **amaierako ebaluazioa** egongo da. Planaren iraunaldiaren azken urtean gauzatuko den produktu honek (prozesuaren eta emaitzen ebaluazioari lotuta egoteaz gain, eraginaren ebaluazioari ere eta nagusiki lotuta dago) modu sakonagoan eta ikuspuntu kualitatiboago batetik aztertuko ditu planaren ezartzearen bost urteetan egindako jarduketak. Modu horretan, hauen aurrerapen- edo atzerapen-maila ere aztertu nahi da:
  - Hautemandako egoerak sortu dituzten egiturazko arrazoiak
  - Ikasitakoa
  - Ezarritako hobekuntzak
  - Gizarte-mailan neurri hori hartzeak izan duen eragina
  - Poztasun-maila
  - Planteatutako neurrien iraunaldia, eta abar

Gainera, esparru honetan, aipatu behar da planak berak, komunikazio-sistema baten diseinuaren eta aplikazioaren bitartez, politiken ebaluazioaren emaitzetatik abiatuta berdintasunaren arloan kudeaketa publikoko kontu-ematea bultzatzera zuzendutako neurri bat duela (GO.1.10).

Beraz, gardentasuna eta kontu-ematea V. Plan honen filosofiaren eta ekintzaren parte dira. Hori dela eta, komunikazio-sistema bat diseinatu eta garatu beharko da (bertan helburu publikoak, sozializaziorako eta komunikaziorako subjektuak, etab. definitu beharko dira) Planaren garapenaren jarraipenari eta ebaluazioari buruz jakinarazteko eta horien berri emateko.

# LAUGARREN ATALA: ERANSKINAK

## 1. ERANSKINA ADIERAZLE ESTRATEGIKOAK

| I. ARDATZA. GOBERNU ONA | |
|---|---|
| **I. programa: Konpromiso politikoa** | |
| **1. H.** Berdintasunerako organo eta administrazio-unitateak indartzea.<br>**2. H.** Berdintasunerako plangintza eta haren ebaluazioa areagotzea eta hobetzea, bai eta berdintasun-politikak garatzeko baliabideak ere.<br>**3. H.** Konpromiso politikoa areagotzea, kuadrilla eta udalerri-mailetan. | • Egiturak indartzeko, plangintza-hobekuntzetarako eta AFAren esparruan politikak garatzeko baliabideetarako lortu diren konpromisoak definitzeko, zehazteko eta hedatzeko maila.<br>• Kuadrilla- eta udalerri-mailan konpromiso politikoa areagotzeko lortu diren konpromisoak definitzeko, zehazteko eta hedatzeko maila. |
| **II. programa: Berdintasunerako trebakuntza** | |
| **1. H.** AFAko langile guztiak prestatzea, baita politikariak ere. | • AFAn maila politikoan eta teknikoan berdintasunaren arloan prestakuntza duten pertsonalak, prestakuntza-maila, mota eta -edukien arabera. |
| **III. programa: Genero-ikuspegia lan-prozeduretan** | |
| **1. H.** Lan-prozeduretan genero-ikuspegia sartzeko sistematika areagotzea eta jarraipen-sistemen bitartez prozedura horien kalitatea bermatzea. | • Genero-ikuspuntuak lan-prozeduretan izandako sistematizazio- eta integrazio-maila.<br>• Kontrol-sistemek lan-prozeduretan izandako garapen-maila. |
| **IV. programa: Politika publikoetan parte hartzea** | |
| **1. H.** Politika publikoetan genero-ikuspegia duen parte-hartzea bultzatzea.<br>**2. H.** Berdintasunaren arloan parte hartzen duten egituren parte-hartzeko gaitasuna eta eragina hobetzea. | • Parte-hartzerako eta kontsulta publikorako esparruak, berrikusitako antolaketa- eta funtzionamendu moduekin<br>• Genero-ikuspegiarekin, eta/edo emakumeek parte hartzeko eta kontsulta publikorako esparruetan planteatutako edukiak eta proposamenak.<br>• Berdintasunerako Foru Kontseiluan, eta eskualdeko batzordeetan eta tokiko foroetan planteatutako ekarpen eta proposamen kopurua, eta horien maila eragin posibleari dagokionez. |

| II. ARDATZA. AHALDUNTZEA | |
|---|---|
| **I. programa: Emakumeen ahalduntze pertsonal eta kolektiborako laguntza** | |
| **1. H.** Lurralde arabar osoan LAIA estrategia ahalduntzerako tresna gisa doitzea eta finkatzea. | • Aldaketak foru sailen parte-hartze mailetan, estrategiak, neurriak, LAIAri emandako laguntza eta abarri dagozkienez.<br>• LAIAn egindako aldaketa kuantitatibo eta kualitatiboak, partaideen dibertsifikazioari, garatutako edukiei eta horiekin dagoen poztasunari dagozkienez. |
| **2. H.** AFAren ekintza publikoko sailen zeharkako parte-hartzea areagotzea, eta, horretarako, horiek LAIAn parte hartzea. | |
| **3. H.** LAIAren jardueretan ikuspegi intersekzionala zabaltzea. | |
| **4. H.** Landa-inguruetako emakumeen eten digitalari aurre egitea. | |
| **5. H.** Lurraldeko neska eta emakume gazteentzat zuzendutako ahalduntze-ekintzen kopurua handitzea. | |
| **6. H.** LGTBI kolektiboko pertsona arabarren ahalduntzea areagotzea. | |
| **7. H.** LAIAn parte hartzen duten gizonen kopurua handitzea. | |
| **II. programa: Emakumeen ahalduntze ekonomikorako laguntza** | |
| **1. H.** Pobrezia-arriskuko egoerak identifikatzea. | • Pobrezia-egoera larrian, pobrezia-egoeran eta pobrezia-arriskuko egoeran dauden emakume kopuruaren bilakaera.<br>• Emakumeek garatutako ekintzailetza-proiektu kopuruaren bilakaera, hasierako tasetan eta biziraute-tasetan.<br>• Kulturartekotasunaren, Lankidetzaren eta Berdintasunaren arloetan parte hartzeko lan-lerroak edo ekintzak dituzten proiektu kopuruaren bilakaera. |
| **2. H.** Emakumeen ahalduntze ekonomikoa bultzatzea. | |
| **3. H.** Planetaren tokiko ikuspuntutik eta ikuspuntu globaletik emakumeen pobrezia-egoera ezagutaraztea eta salatzea. | |
| **III. programa: emakumeen ahalduntze sozial eta politikorako laguntza** | |
| **1. H.** Lurraldeko emakumeen elkarte-sarea sustatzea. | • Presentzia politikoaren bilakaera, erreferentziazko foro eta batzordeetan egondako partaidetza-mailen, proposamen-bidalketen mailen, proposamenekin erlazionatutako eduki moten eta abarren arabera. |
| **2. H.** Tokiko eta kuadrilletako foroen eta batzordeen intzidentzia politikoa areagotzea. | |
| **3. H.** Tokiko lanpostu politikoetan dauden gizonak berdintasunaren eta emakumeen ahalduntzearen alde sentsibilizatzera eta prestakuntza jasotzera bultzatzea. | |

<table>
<tr><th colspan="2">III. ARDATZA. EMAKUMEEN KONTRAKO INDARKERIA MATXISTAK DESAGERRARAZTEA</th></tr>
<tr><th colspan="2">I. programa. Ikerketa, sentsibilizazioa eta prestakuntza</th></tr>
<tr><td>1. H. Indarkeria matxistaren arloan ezagutza gehiago izatea.</td><td rowspan="4">• Garatutako ikerketen politiketan, programetan eta estrategietan egondako aldaketen presentzia.<br>• Pertsona, talde eta organismo sentsibilizatuak, edo sentsibilizazio- eta prebentzio-proiektuetako partaideak edo horien hartzaileak.<br>• Indarkeriaren arloan prestakuntza jaso duten pertsonak (hasierako prestakuntzaren eta prestakuntza jarraituaren bidez) eta prestakuntza-edukiak.<br>• Indarkeria matxistaren prebentzioan eta desagerpenean sentsibilizatuta dauden gizonak eta gazteak.</td></tr>
<tr><td>2. H. Sentsibilizazio- eta prebentzio-proiektuak planifikatzea eta garatzea.</td></tr>
<tr><td>3. H. Derrigorrezko hasierako prestakuntza jarraitua bermatzea.</td></tr>
<tr><td>4. H. Gizon eta gazte arabarrak indarkeria matxistaren prebentzioan eta desagerpenean inplikatzea.</td></tr>
<tr><th colspan="2">II programa. Detekzioa, arreta, erreparazioa eta ahalduntzea</th></tr>
<tr><td>1. H. Indarkeria matxisten inguruko hautemate-mekanismoak eta -programak garatzea.</td><td rowspan="4">• Hautemate-mekanismoak eta -programak garatu ondoren hautemandako indarkeria matxistako egoera kopuruaren bilakaera.<br>• Indarkeria matxistatik bizirik irten diren pertsonen poztasun-mailaren bilakaera, arretaren eta erreparazioaren arabera.</td></tr>
<tr><td>2. H. Arreta-baliabideak finkatzea eta sendotzea.</td></tr>
<tr><td>3. H. Erreparaziorako eta ez errepikatzeko erantzun instituzionala egituratzea.</td></tr>
<tr><td>3. H. Emakume guztiek indarkeriarik gabe bizitzeko duten eskubidea bermatzea.</td></tr>
<tr><th colspan="2">III. programa. Koordinazioa</th></tr>
<tr><td>1. H. Emakumeen kontrako indarkeria matxistaren aurrean jokabide koordinatu eta eraginkor bat bermatzea.</td><td>• Bilera kopuruaren maila, eta koordinazio-esparru eta -egituretan jorratutako eduki eta erabaki moten bilakaera.</td></tr>
</table>

| IV. ARDATZA. ZAINKETEN ANTOLAKETA SOZIALA | |
|---|---|
| I. programa. Zainketa instituzionalak | |
| 1. H. Zainketa instituzionalak diagnostikatzeko, hobetzeko eta zabaltzeko estrategia bat garatzea. | • Zainketa instituzionalen programetan diseinatutako, planteatutako eta garatutako aldaketak. |
| II. programa. Zainketa profesionalak | |
| 1. H. Zainketa profesionalak, eta horiek egiten diren testuinguruak diagnostikatzeko, agerian jartzeko, baloratzeko eta hobetzeko estrategia bat garatzea. | • Zainketa profesionalen sektoreko lan-baldintzen bilakaera.<br>• Garatutako zainketa profesionalen esparruetako lanpostuen aztarnategiekin lotutako programak eta horietako partaideak. |
| III. programa. Zainketa ez profesionalak | |
| 3. H. Zainketa ez profesionalak, eta horiek egiten diren testuinguruak diagnostikatzeko, agerian jartzeko, baloratzeko eta hobetzeko estrategia bat garatzea. | • ALHko enpresetan egondako aldaketak, kontziliazioaren eta erantzukizunaren esparruko neurrien garapenari dagokionez.<br>• Zerga-politikaren analisian zainketa ez-ordainduen lanak sartzeari buruzko analisiaren presentzia-maila. |

## 2. ERANSKINA ARAU-ESPARRUA ETA ESPARRU PROGRAMATIKOA

Arabako Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako V. Foru Planaren eraikuntzak Arabako berdintasunerako politika publikoetarako erreferentziazko **arau-esparrua** eta lurralde historikorako erreferentziazko **esparru programatikoa** oinarri hartzen ditu. Jarraian, erreferentziazko tresna legegile eta programatiko nagusiak biltzen dira.

### ARAU- ETA ERREFERENTZIA-ESPARRUA

**Europa mailan**, hauek diren arau-erreferentzia nagusiak:

- **1999az ezkero indarrean dagoen** Amsterdameko Itunak **Europar Batasuneko oinarrizko printzipio gisa aintzatesten du emakumeen eta gizonen berdintasuna.**Europar Batasunaren Itunak berak **emakumeen eta gizonen arteko desparekotasunak kentzeko, eta haien berdintasuna sustatzeko helburua integratu behar dela planteatzen du.** Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Ituna **ere erreferentzia bat da.**
- Europar Batasunaren Oinarrizko Eskubideen Gutunak (2016) eta Europako Kontseiluaren hitzarmenak, emakumeen kontrako indarkeria eta etxeko indarkeria prebenitzekoa eta borrokatzekoak (Istanbulgo Hitzarmena, 2016), hauek ezartzen dituzte beren helburuen artean: «*a) emakumeak indarkeria mota guztietatik babestea; b) indarkeria mota horiek desagerrarazteko lan egitea; c) esparru orokor bat, eta babes- eta laguntza-politikak eta neurriak sortzea; e) erakundeei, eta segurtasun-indar eta -gorputzak ikuspuntu integratu bat lortzen laguntzea, indarkeria mota horiek desagerrarazteko asmoz.*
- 2005eko Europako Kontseiluaren hitzarmena, gizakien salerosketaren aurkako borrokari buruzkoa (Varsoviako Hitzarmena), Espainiako estatuak 2009an berretsitakoa. Hau ezartzen du: *a) gizakien salerosketa prebenitzea eta borrokatzea, genero-berdintasuna bermatuta; b) salerosketaren biktimen giza eskubideak babestea*.
- 2004/113 Zuzentaraua, ondasunak eta zerbitzuak eskuratzeko eta hornitzeko garaian emakumeengan eta gizonengan tratu-berdintasunaren printzipioa aplikatzeari buruzkoa.
- 2006/54/EK Zuzentaraua, gizonen eta emakumeen arteko aukera- eta lan-berdintasunaren printzipioa aplikatzeari buruzkoa.
- 2010/41/EK Zuzentaraua**,** jarduera autonomo bat gauzatzen duten emakumeen eta gizonen tratu-berdintasunaren printzipioa aplikatzeari buruzkoa.

**Estatu-mailan**, hauek dira oinarrizko erreferentziak:

- 3/2007 Legea, martxoaren 22koa, emakumeen eta gizonen benetako berdintasunerako. Hau ezartzen du: «*Emakumeek eta gizonek giza duintasun bera dute, baita eskubide eta betebehar berak ere. Lege honen helburua emakumeen eta gizonen tratu- eta aukera-berdintasunaren eskubidea egi bihurtzea da, bereziki emakumearen diskriminazioa desagerrarazita*".
- **Erreferentzia ere bada** 30/2003 Legea, urriaren 13koa, Gobernuak egingo dituen arau-balorazioetan genero-eraginaren ebaluazioa txertatzeko neurriei buruzkoa**.** Genero-

arrazoiengatik eraginari buruzko txosten bat sortzeko derrigortasuna ezartzen da Lege honetan, baita txosten mota bera erregelamenduetarako izatea ere.

- Aipatzekoa da ere 1/2004 Lege Organikoa, abenduaren 28koa, genero-indarkeriaren kontra oso-osoko babesa emateari buruzkoa. **Xede hau du: *indarkeriaren kontra egitea, indarkeria emakumeen aurka erabiltzen dutenean horien ezkontide direnek edo izan direnek, edo haiekin horren antzeko maitasun-harremanak dituztenek edo izan dituztenek, nahiz eta elkarbizitzarik ez izan, diskriminazioaren, desberdintasun-egoeraren eta gizonek emakumeei ezartzen dizkieten botere-harremanen agerpen gisa.***
- Azkenik, arau bat ez bada ere, **Genero-indarkeriaren aurkako estatu-ituna** aipatu behar da, 2017ko abenduan talde parlamentarioek eta Udalerrien eta Probintzien Espainiako Federazioan ordezkatutako erkidego autonomoek eta tokiko entitateek berretsi zena.

**Erkidego-mailan**, hau da erreferentzia nagusia:

- Emakumeen eta gizonen berdintasunerako, eta emakumeen kontrako indarkeria matxistarik gabeko bizitzentzako legea. Euskal administrazio publikoetarako emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko eskumen-esparrua ezartzen du Lege horrek.

**Foru-mailan**, ez dago arau-erreferentziarik. Halere, ALHko zenbait udalek berdintasun-ordenantzak onesten hasi dira; esaterako Kanpezu (2015) edo Zalduondo (2018).

## ESPARRU PROGRAMATIKOA

Esparru programatikoari dagokionez, **nazioarteko mailan** hauek dira erreferentziak aipagarrienak:

- Pekingo deklarazioa eta Nazio Batuen emakumeei buruzko munduko IV. hitzaldiaren ekintzarako plataforma (Pekin, 1995); **bertan, nazioarteko bide-orri bat identifikatu ahal izan zen, zeina hainbat erronkak eta esku hartzeko arlok osatzen baitzuten. Erronka eta arlo horien helburua emakumeen eta gizonen arteko desparekotasunak, eta benetako aukera-berdintasuna bermatzea zen.**
- Biztanleriari, eta sexu- eta erreprodukzio-eskubideen inguruko garapenari buruzko nazioarteko hitzaldiaren ekintzarako programa, Nazio Batuek 1994an onetsi zutena. Hitzaldian sexu- eta erreprodukzio-eskubideei buruzko gaiak jorratu ziren, eta nesken, nerabeen eta emakumeen egoera hobetzeko ekintzak definitu. **Ondoren, 2019ko** Biztanleriari buruzko Nairobiko nazioarteko hitzaldian *osasun-estaldura unibertsal gisa sexu- eta erreprodukzio-eskubideetarako sarbide unibertsala* landu zen, bai eta finantzaketa bermatzeko beharra ere.
- Bere aldetik, Garapen Jasangarrirako 2030 Agendan **berdintasuna helburu gisa aipatzen da**. 5. GJHa «*genero-berdintasuna lortzean, eta emakume eta neska guztiak ahalduntzean*» jartzen du arreta, eta hori lortzeko helburu zehatzak zerrendatzen ditu. Gainera, genero-berdintasunaren aldeko konpromisoa zeharkako moduan jorratzen da gainerako GJHetan.

**Europa mailan**, hauek nabarmentzen dira:

- Europako Batzordearen Genero-berdintasunerako 2020-2025 estrategia; 2020-2025 aldirako helburu estrategikoak eta funtsezko ekintzak ezartzen ditu.

Erkidego-mailan, hau da erreferentzia nagusia:

- EAEko emakumeen eta gizonen berdintasunerako VII. plana; *bertan aipatzen da zer lan egin behar den emakumeen eta gizonen berdintasuna lortzeko. EAEko botere eta administrazio publiko guztiek aplikatu beharko dute; hala, planean zehaztutako esku-hartzeko ildoekin bat, berdintasun arloko jarduera-plan eta -programak osatu beharko dituzte.*

## 3. ERANSKINA AFA-REN SAILEN ORAINGO EGITURA

<table>
<tr><th>SAILA</th><th>ZUZENDARITZAK</th><th>ZERBITZUAK</th><th>ATXIKITAKO ENTITATEAK ETA ORGANISMOAK</th></tr>
<tr><td rowspan="4">Ahaldun nagusia</td><td>Kabinetea eta Komunikazioa</td><td>- Miñoien Zerbitzua<br>- Idazkaritza-zerbitzua Aldundiaren Orokorra<br>- Aholkularitza Juridikoko Zerbitzua<br>- Araubidezko Garapenerako eta Biltzar Nagusiekiko Harremanetarako Zerbitzua<br>- Idazkaritza Teknikoko eta Herritarren Arretarako Zerbitzua<br>- Gizarte eta Erakunde Harremanetarako Zuzendaritza<br>- Datuak Babesteko Ordezkaria</td><td rowspan="4">- Foru Administrazioaren Kontsulta Batzordea<br>- Kontratuen Inguruko Errekurtsoen Administrazio Organo Forala<br>- Euskara Batzordea<br>- Gardentasunerako Foru Kontseilua<br>- Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Sailarteko Batzordea<br>- Bizikidetasunaren eta Kulturartekotasunaren Arabako Foru Batzordea<br>- Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Batzordea<br>- Berdintasunerako Batzorde Iraunkorra</td></tr>
<tr><td>Euskara eta Gobernu Irekia</td><td>- Euskara-zerbitzu Forala</td></tr>
<tr><td>Berdintasuna eta Giza Eskubideak:</td><td>- Berdintasun, Lankidetza eta Kulturartekotasun Zerbitzua</td></tr>
<tr><td>Arlo estrategikoak</td><td></td></tr>
<tr><td>Garapen Ekonomikoa, Berrikuntza eta Erronka Demografikoa</td><td>Ekonomiaren Garapena eta Berrikuntza</td><td>- Ekonomiaren Garapeneko eta Berrikuntzako Zerbitzua</td><td>- Álava Agencia de Desarrollo, SA<br>- 104 Naturgolf, SA<br>- 384 Lurraldeen arteko oreka sustatzeko eta ALHko despopulatzea ekiditeko erakundearteko mahaia<br>- Lurraldeen arteko oreka sustatzeko eta ALHko despopulatzea ekiditeko sailarteko batzordea</td></tr>
</table>

| | | | |
|---|---|---|---|
| | Erronka demografikoa | | |
| **Enpleguaren, Merkataritzaren eta Turismoaren Sustatzea eta Foru Administrazioa** | Funtzio Publikoa | - Funtzio Publikoko Idazkaritza Teknikoko Zerbitzua<br>- Giza Baliabideen Zerbitzua<br>- Hautapenerako eta Araubide Juridikorako Zerbitzua<br>- Laneko Arriskuen Prebentziorako Zerbitzua<br>- Euskara-zerbitzua | - Ondasun higiezinen erabilerarako eta izaterako batzordea<br>- Turismoko foru batzordea<br>- Arabako Foru Administrazioaren Dokumentazioaren ebaluaziorako eta hautapenerako batzordea<br>- Segurtasun eta Osasun Batzordea<br>- Centro de Cálculo de Álava, SA |
| | Zerbitzu Orokorrak | - Antolaketa-zerbitzua<br>- Informatika-zerbitzua<br>- Laborategi Orokorreko Zerbitzua<br>- Ibilgailu Parkeko Zerbitzua.<br>- Mantentze-lanen Zerbitzua<br>- Inprimategi-zerbitzua<br>- Idazkaritza-zerbitzua Zerbitzu Orokorren Teknikaria<br>- Langile Osagarrien Zerbitzua.<br>- Arkitektura-zerbitzua | |
| | Enpleguaren, Merkataritzaren eta Turismoaren Sustatzea | - Enpleguaren, Merkataritzaren eta Turismoaren Sustatzearen Zerbitzua | |
| **Ogasuna, Finantzak eta Aurrekontuak** | Ogasuna | - Zergadunekiko harremana<br>- Tributuen ikuskaritza<br>- Zerga-araudia<br>- Diru-sarrera fiskalen kudeaketa<br>- Zuzeneko tributuak<br>- Zeharkako tributuak<br>- Toki-tributuak eta Katastroa.<br>Diru-bilketako Zerbitzua | - Estatistika Batzorde Forala |
| | Finantzak eta Aurrekontuak | - Esku-hartzea eta kontrola<br>- Kontularitza<br>- Aurrekontuak eta Konpromiso Instituzionalak<br>- Finantza-kudeaketa<br>- Ondarea<br>- Ogasun, Finantza eta Aurrekontuetako Idazkaritza Teknikoa<br>- Europarekin Erlazionatutako Gaiak | |
| **Lurraldeen Arteko Oreka** | Lurraldeen Arteko Oreka | - Tokiko Finantzaketarako eta Kudeaketa Administratiborako Zerbitzua | - Arabarri<br>- Arabako Foru Suhiltzaileak |

| | | | |
|---|---|---|---|
| | | - Tokiko Administraziorako eta Larrialdietarako Zerbitzua<br>- Aholkularitza Juridikoko Zerbitzua<br>- Tokiko eta udalerriz gaindiko azpiegituren sustapenerako eta finantzaketarako zerbitzua | - Babes Zibileko Batzordea |
| Bide-azpiegiturak eta Mugikortasuna | Bide-azpiegiturak | - Errepide-zerbitzua<br>- Bide-azpiegituren eta Mugikortasunaren Idazkaritza Teknikoko Zerbitzua<br>- Lege eta Administrazio Zerbitzua | - Arabako Bideak-Vías de Álava SA<br>- Arabako Garraioen Arbitraje Batzordea |
| | Mugikortasuna eta Garraioak | - Mugikortasun eta Garraio Zerbitzua<br>- Garraioak Ikuskatzeko Zerbitzua | |
| Gizarte-politikak | Gizarte-zerbitzuak | - Gizarte-zerbitzuen Idazkaritza-zerbitzua<br>- Gizarte-zerbitzuen Erregistroaren eta Ikuskaritzaren Zerbitzua | - Adingabeen Kontseilua, Diputatuen Kontseiluaren azaroaren 5eko 469/1985 Foru Dekretuaren bidez eratua.<br>- Arabako Gizarte-zerbitzuen Lurraldeko Kontseilua, Diputatuen Kontseiluaren ekainaren 15eko 28/2010 Foru Dekretuaren bidez eratua.<br>- Esku-hartze Sozialerako Etika-batzordea, maiatzaren 3ko 55/2011 Foru Aginduaren bidez eratua. |
| | Berrikuntza, eta kudeaketa-sistemak eta ebaluazioa | | |
| Nekazaritza | Nekazaritza | - Nekazaritza Garapenerako Zerbitzua<br>- Abeltzaintza Zerbitzua<br>- Zuzeneko Dirulaguntzen Zerbitzua<br>- Mahastizaintza eta Enologia Zerbitzua<br>- Nekazaritzaren Idazkaritza Teknikoko Zerbitzua | - ALDALUR ARABA SL sozietate publikoa<br>- Lurraldeko Ehiza Batzordea<br>- Lurraldeko Arrantza Batzordea<br>- Landa Garapenerako Arabako Lurraldeko Kontsulta Batzordea |

| | | | |
|---|---|---|---|
| | | - Mendi-zerbitzua | - Sail ureztatuen arloko Arabako Lurraldeko Batzordea<br>- Nekazaritza Ekologikoko Lurralde Batzordea |
| Kultura eta Kirola | Kultura | - Artxiboaren eta Dokumentu Kudeaketaren Zerbitzua<br>- Museoen eta Arkeologiaren Zerbitzua<br>- Sukaldaritza Zerbitzua<br>- Kultur Etxearen Zerbitzua<br>- Kultur Ekintza Zerbitzua<br>- Kulturaren eta Kirolaren Idazkaritza Teknikoko Zerbitzua<br>- Historia eta Arkitektura Ondarearen Zerbitzua | - Santa Maria Katedrala Fundazioa<br>- Arabako Artium Fundazioa<br>- Gazteriaren Foru Erakundea<br>- Eskola-kirolaren Arabako Lurraldeko Batzordea<br>- KIROLARABA Fundazioa<br>- Añanako Gatz Harana Fundazioa<br>- Gazte Partaidetzaren Arabako Lurraldeko Batzordea |
| | Kirola | - Kirol-zerbitzua | |
| Ingurumena eta Hirigintza | Ingurumena eta Hirigintza | - Ingurumenaren eta Hirigintzaren Idazkaritza Teknikoaren Zerbitzua<br>- Ondare Naturalaren Zerbitzua, zeinaren menpe hauek baitaude:<br>- Ingurumen Jasangarritasunaren Zerbitzua<br>- Ingurumenaren Kalitaterako Zerbitzua<br>- Lurralde Antolamendurako eta Hirigintzarako Zerbitzua | - Gorbeiako Parke Naturalaren Patronatua<br>- Valderejoko Parke Naturalaren Patronatua<br>- Izkiko Parke Naturalaren Patronatua<br>- Hirigintzako Batzordea<br>- Arabako Ibilbide Berdeen Sarearen Batzordea |